



OT-006/20-PTP-MEM-Balmaseda-Zalla

***BALMASEDA-ZALLAKO (ENKARTERRIKO) LURRALDE PLAN
PARTZIALAREN 2.JARRAIKEN-MEMORIA
2ª MEMORIA DE SEGUIMIENTO DE PLAN TERRITORIAL PARCIAL DE
BALMASEDA-ZALLA (ENCARTACIONES)***

Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritza
Dirección de Planificación Territorial, Urbanismo y Regeneración Urbana

Vitoria-Gasteizen, 2020ko azaroa
Vitoria-Gasteiz, noviembre 2020

BALMASEDA-ZALLA (ENKARTERRI) EREMUKO LURRALDE-PLAN PARTZIALAREN II. JARRAIPEN-MEMORIA. 2020

AURKIBIDEA

0.- SARRERA

I. LURRALDE-PLAN PARTZIALAREN OINARRIZKO PROPOSAMENAK

I.1. LURRALDE-EREDUA

I.2. INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA

I.2.1. Ingurune fisikoa

I.2.2. Sare berdea

I.3. LANDA-HABITATA

I.4. HIRI-HABITATA

I.4.1. Hiri-sistema: nukleo anitzeko hiriburu-sistema, eremu funtzionaletako hiriburutzen eta hiriburutzaordeen sarea eta eraldaketa-ardatzak

I.4.2 Hiri-berroneratzea

I.4.3 Hiri-hazkundearen perimetroa

I.4.4 Jarduera ekonomikoetarako lurzorua

I.4.5 Bizitegi-kuantifikazioa

I.4.6 Plangintzak bateragarri egitea

I.5 PAISAIA, KULTURA- ETA NATURA-ONDAREA, ETA BALIABIDE TURISTIKOAK

I.5.1 Paisaia

I.5.2 Kultura-ondarea

I.5.3 Natura-ondarea

I.5.4 Baliabide turistikoak

I.6 BALIABIDEEN KUDEAKETA JASANGARRIA

I.6.1 Ura

I.6.2 Energia

I.6.3 Ekonomia zirkularra

I.7 MUGIKORTASUNA ETA LOGISTIKA

I.7.1 Mugikortasun multimodala

I.7.2 Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

I.7.3 Bide-mugikortasuna

I.7.4 Tren-, portu- eta aireportu-arloko mugikortasuna eta logistika.

I.8 ZEHARKAKO GAIAK

I.8.1 Irisgarritasun unibertsala

I.8.2 Genero-ikuspegia

I.8.3 Klima-aldaketa

I.8.4 Osasuna

I.8.5 Euskara

I.8.6 Lurraldeen interrelazioa

I.9 GOBERNANTZA

II. ONDORIOAK

I. ERANSKINA.- LURRALDE- ETA HIRIGINTZA-JASANGARRITASUNEN ADIERAZLEAK

0.- SARRERA

Balmaseda-Zallako (Enkarterri) eremu funtzionalaren lurralde-plan partziala behin betiko onartu zen urriaren 26ko 226/2011 Dekretuaren bidez. Planaren Araudiko 4. artikulua horren indarraldia zehazten du eta, 3. puntuan, jarraipen-memoria egin behar dela adierazten da, zehaztapenen betetze-maila azaltzeko:

4.3. artikulua.– Lau urtean behin, Balmaseda-Zallako (Enkarterri) eremu funtzionalaren lurralde-plan partzialaren idazketan eta jarraipenean eskumena duten Eusko Jaurlaritzako eta Bizkaiko Foru Aldundiko sailek memoria bat prestatuko dute, plana nola bete den balioztatzeko, eta ikusteko zer eragin izan duen lurralde-antolaketa partzialean eta sektorialean eta udaleko hirigintza-plangintzan; gainera, hala egokituz gero, hautematen diren desorekak galarazteko zer neurri hartu behar diren zehaztuko du. Memoria hori Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordean aurkeztuko da, batzordeak haren berri izan dezan.

2017ko ekainean, LPP honen lehen jarraipen-memoria egin zen. Horretan, gertatutako aldaketa sozioekonomikoek eragin ahal izan zituzten desdoikuntzak identifikatu ziren, halakorik balego. Ondorioztatu zen Enkarterriko eremu funtzionalak autonomia-erkidegoko garapen-prozesuetatik deskonektatuta egoten jarraitzen zuela eta, lurralde-antolamenduaren gidalerroetan Bilbo Metropolitarretik lurralde horretarako jarduerak eta baliabideak ezagutarazteko estrategiak planteatzen ziren arren, asko geratzen zela indartzeko esparru horretan.

2019an behin betikoz onartu ziren EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerro berriak, uztailaren 30eko 128/2019 Dekretuaren bidez. Dokumentu honen xedea LPPa 2019ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroen arabera aztertzea da, eta jarraipen-lanarekin jarraitzea, LPParen bigarren jarraipen-memoria prestatuz.

Memoria hau 2019ko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetako kapitulu handiei jarraikiz egituratu da, LPPko zehaztapenak nahiz administrazioek garatu dituzten sektore-politikak aztertuz. Gainera, eskuragarri dauden azken Udalplaneko (Udalplan 2019) datuak Lurralde Planaren indarraldiko lehen urteko datuak jasotzen dituenarekin (Udalplan 2011) konparatzen dira.

Balmaseda-Zallako (Enkarterri) Lurralde Plan Partzialak honako udalerri hauek hartzen ditu: Artzentales, Balmaseda, Galdames, Gordexola, Gueñes, Lanestosa, Sopuerta, Turtzioz, Karrantza eta Zalla; eta horren xede nagusiak hauek dira: behar adinako tamaina funtzionala lortzea, lurraldearen muga fisikoa gaingidatuz, eta lurralde-mailan eragina duten ekintzak koordinatzea; Natura Ingurunea eta Kultura Ondarea babestea eta balioestea, ekipamendu eta espazio libreak indartu eta garatzea, eta etxebizitza kopurua areagotzea, jarduera ekonomikoekin orekan eta etxebizitzak komunikabide nagusiekin lotuz; hori guztia, 16 urteko denbora-tartea gogoan izanda.

LPPa onartu zenetik behin betiko onetsi den hirigintza-plangintza

Eremu funtzionala osatzen duten hamar udalerrietatik, Artzentalesek bakarrik du HAPOa, 2013an onetsia. Hau da, hori da LPPa behin betiko onetsi ostean onartu den planteamendu bakarra. Aipatzekoa da Gordexolak 2014an behin betiko onetsi zen HAPO bat izan zuela, baina 2017ko justizia-epaiaren ondorioz ezeztatuta geratu zela. 2018an, Gordexolak hasteko akordio bat egin zuen. 2020an, Balmasedan HAPOaren Aurrerapenaz aurretiko diagnostikoa egin dute. Karrantzan, 2020an idatzi da HAPOaren Aurrerapena. Gainerakoei dagokienez, Lanestosako (arau subsidiarioak, 1992) eta Karrantzako (arau subsidiarioak, 1991) planeamenduak 1997ko LAG onetsi aurretikoak dira eta guztiak dira 2019ko LAG onetsi aurretikoak.

Jarraian, udalerrien eta horien plangintzaren taula ageri da

Artzentales,	HAPO, 2013	Lanestosa,	arau subsidiarioak, 1992
Balmaseda,	arau subsidiarioak, 2004	Sopuerta,	arau subsidiarioak, 2004
Galdames,	arau subsidiarioak, 2003	Turtzioz,	arau subsidiarioak, 1998
Gordexola,	arau subsidiarioak, 1998	Karrantza,	arau subsidiarioak, 1991
Gueñes,	arau subsidiarioak, 2006	Zalla	arau subsidiarioak, 1999

I. LURRALDE-PLAN PARTZIALAREN OINARRIZKO PROPOSAMENAK

I.1. LURRALDE-EREDUA

LPParen zehaztapenak

Natura-ingurunearen ezaugarriek eta Bilbo Metropolitarraren hurbiltasunak nabarmen baldintzatu dituzte lurralde honen bilakaera eta garapena. Eredu oso menditsua da eta lau haranetan dago zatituta: Karrantzako harana, Turtziozko harana, Artzentalesko harana eta Kadagua harana. Egitura horrek mugatu egiten ditu komunikatzeko aukerak, bai barruan bai ere mugakideekin.

Mendebaldean dauden udalerriek lehen sektorean dihardute, nagusiki behi-aziendan eta basogintzan. Kadagua harana, berriz, oso industrializatuta dago eta eremu funtzionaleko biztanleriaren ia % 65 du; gainera, Bilbo Metropolitarrarekin komunikatzeko bide naturala da. Gainerako udalerriei dagokienez, Sopuerta, Goredexola eta Galdames trantsizio-espazioak dira. Aurreko bi esparruen ezaugarri eta arazo berberak dituzte, eta Sopuerta eta Galdames erauzte-jarduerengatik nabarmentzen dira.

LPParen helburu nagusiak honako hauek dira:

- Natura-ingurunea eta kultura-ondarea babestea eta balioestea,
- ekipamendu eta espazio libreak indartu eta garatzea,
- etxebizitza kopurua areagotzea eta horien eta jarduera ekonomikoen arteko orekari bide ematea,
- eta komunikabide nagusiei loturiko jarduera ekonomikoak sustatzea.


2011ko Udalplanaren arabera, Enkarterriko datuak honako hauek ziren:

- Bizitegi-lurzorua 733,47 ha
- Jarduera ekonomikoak 162,38 ha
- Sistema Orokorrak 592,54 ha
- Lurzorua urbanizaezina 41.480,27 ha

Egungo lurralde-eredua

LPParen zehaztapenak bat datoz Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin (LAG) eta ondoren onetsitako lurralde-planekin. 2019ko Udalplanean jasotako balioak honako hauek dira:

Lurralde eredua – Modelo territorial



1. LURRALDE EREDUA - MODELO TERRITORIAL											
UDALPLAN 2019	1(a)		1(b)		1(c)		1 (Lurralde Eredua - Modelo Territorial)		1(d)		1 (Lurralde Eredua - Modelo Territorial)
	Egoitza		arduera Ekonomikoa		Sistema Orokorrak		Kalifikatua guztira		Lurzoru Urbanizaezina		Guztira
	Residencial		Actividades Económicas		Sistemas Generales		Total calificado		Suelo no Urbanizable		Total
LURRALDE ESPARRUA	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha
ÁMBITO TERRITORIAL	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha
UDALERRIAK / MUNICIPIOS											
Artzentales	14	0,39%	0	0,01%	49	1,33%	63	1,73%	3.598	98,27%	3.661
Karrantza Harana/Va	47	0,34%	6	0,05%	40	0,29%	93	0,68%	13.703	99,32%	13.796
Galdames	29	0,65%	15	0,35%	29	0,64%	73	1,65%	4.365	98,35%	4.438
Gordexola	28	0,69%	8	0,19%	41	1,00%	77	1,88%	4.029	98,12%	4.106
Güeñes	108	2,60%	55	1,32%	122	2,95%	285	6,87%	3.864	93,13%	4.149
Lanestosa	20	17,60%	0	0,00%	9	8,12%	29	25,72%	85	74,28%	114
Sopuerta	71	1,67%	6	0,15%	39	0,91%	116	2,73%	4.127	97,27%	4.243
Trucios-Turtzios	24	0,76%	3	0,10%	5	0,16%	32	1,02%	3.059	98,98%	3.091
Balmaseda	60	2,69%	39	1,75%	30	1,36%	130	5,81%	2.105	94,19%	2.235
Zalla	79	2,52%	39	1,24%	115	3,68%	232	7,44%	2.885	92,56%	3.117
ENKARTERRI											
Enkarterri	480	1,12%	172	0,40%	479	1,12%	1.131	2,63%	41.819	97,37%	42.950

Oharra: Ikus daitekeenez, taulako balioak aldatu egin dira, batez ere bizitegi-lurzoruei eta horiek lurzoru urbanizaezinetan dituzten ondorioei dagokienez. Aldaketa hori, nagusiki, azalera grafikoa kontabilizatzeko irizpideetan aldaketak egon direlako gertatu da.

2011-2019 aldian, eremu funtzionalean hirigintza-erlaketak gutxi egon dira.

I.2. INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA

I.2.1 INGURUNE FISIKOA

Ingurune fisikoaren barruan sartzen dira indarreko plangintzan hiri-lurzorutzat edo urbanizagarritzat sailkatuta ez dauden lurzoru guztiak, eta, nagusiki, nekazaritza-, abeltzaintza- eta basogintza-erabileretara bideratuta egoten dira edo babestea merezi duten balioak dituzte.

LPParen zehaztapenak

Antolamendu-kategoriak eta baldintzatzaile gainjarriak

LPPak honako antolamendu-kategoria, baldintzatzaile gainjarri eta natura-ingurunearen osagai nabarmen hauek proposatzen ditu ingurune fisikoaren lurralde eredurako. 2019ko LAGen izenak agertzen dira parentesi artean.

A. Babes berezia:

A.1. Baso naturalak:

Bertako landaredi edo landaredi naturala duten zuhaitz-masez osatutako eremuak; horien mugak, kokapena eta naturaltasun-maila dagokion garapen-plangintzan definituko dira eta hamar (10) metro inguruko perimetro-erreserba izango dute.

A.2. Aparteko zuhaitzak; horietarako, LPPak babes-erregimena eta Babes Eremu Periferikoa ezartzen ditu:

- LPPak proposatutakoak:

- Sodupeko San Bizenteko artea (Güeñes)
- San Estebango artea (Galdames)
- Balmasedako Zuhaitz Potoloa
- La Tajadako haritza (Sopuerta)
- Zariketeko San Pedroko haritza (Zalla)
- Zoko Maiteko haritza (Balmaseda)

- Artzentalesko haritza: maiatzaren 16ko 265/1995 Dekretuak izendatu zuen eta EAEko Natura Espazioen Sarearen barruan dagoen ale bakarra da.

A.3. Habitat lehenetsiak

Desagertzeko arriskuan dauden habitat naturalak, basa-espezieen kontserbaziorako interes handikoak diren eremuak.

B. Ingurumena hobetzeko eta ingurumena lehengoratzeko eremuak (LAG, Ingurumen Hobekuntza)

B.1. Bertako landaredia lehengoratzeko eremuak: Baso natural narriatuak dira; horiek, behin jatorrizko egoerara lehengoratu ostean, Babes Berezikotako kategorian sartzen dira.

B.2. Eremu andeatuen lehengoratzeko-eremuak: giza jardueraren ondorioz eraldaketa sakonak pairatu dituzten tokiak dira.

C. Mendi-larreak (LAG, mendi-larreak)

Altuerako abeltzaintza-eremuak. LPParen xedea artzain-jarduera modu jasagarrian mantentzea da, eta abeltzaintza-gainkarga eta abeltzaintza estentsibo tradizionalari loturik ez dauden eraikin edo azpiegiturak saihestea.

D. Lurrazaleko urak babestea

E. Nekazaritza eta abeltzaintza, eta landazabala

Nekazaritza-ekoizpenerako ahalmen eta gaitasun handiagoa duten lurzorua, lehen aipatutako babes-kategorietan sartuta ez daudenak. LPPak Nekazaritza eta Basogintzako Lurralde Plan Sektorialeko (LPS) Nekazaritza- eta abeltzaintza- eta Landazabala-kategoriak zehazten ditu, eta honako azpikategoria hauek bereizten ditu: balio estrategiko handiko nekazaritza eta basozaintza, eta trantsizioko landa-paisaia.

F. Basogintza

Aintzat hartu dira Nekazaritza eta Basogintzako LPSko Basogintza eta Baso Urriaren kategoriak, LPP honetan babes bereziaren kategoriaren barruan jaso diren espazioak kanpo utzita.

Baldintzatzaile gainjarriak LPParen babes-forma zuzena dira, eta erabilera-baldintzatzaile gisa jarduten dute, hala dagokionean, Babes Kategoriei gainjarritik. Baldintzatzaile gainjarri horiek bat datoz egungo LAGetan finkatuekin, nahiz eta aldaketa txikiak dauden parentesi artean gehitzen diren izenetan:

A. Akuiferoen kutsadurarekiko kalteberak diren eremuak (LAG, Arrisku naturalak eta klima-aldaketa, akuiferoen urratze-arriskua)

B. Uholde-arriskua duten babes eremuak (LAG, Arrisku naturalak eta klima-aldaketa, uholde-arriskuguneak)

C. Erosio-arriskua duten eremuak (LAG, Arrisku naturalak eta klima-aldaketa, arrisku geologikoak)

D. Naturagune babestuak: (LAG, Azpiegitura Berdekoak, ingurumen-balioarengatik babestuta dauden espazioak)

D.1. Euskal Autonomia Erkidegoko Espazio Naturalen Sarea.

- Armañon Parke Naturala (irailaren 19ko 176/2006 Dekretuaren bidez izendatua)
- Trianoko Mendietako biotopo babestua (izendapena izapidetze-fasean)
- Artzentalesko aparteko haritza

D.2. Batasunaren intereseko lekuak (Natura 2000 Sarea):

- Armañongo BGL (parke naturalarekin bat dator)
- Ordunteko BGL

Natura-ingurune osagai nabarmenak lau multzotan azpisailekatzen dira:

- a) Korridore ekologikoak.
- b) Interes geologiko eta geomorfologikoko eremuak.
- c) Paisaia-balioa duten nekazaritza-sistemak.

d) Mehatxatutako flora- eta fauna-espezieen babes-eremuak.

Ingurumen-politikaren alderdiak egokitzea. Espazio babestuak.

Balmaseda-Zallako (Enkarterri) LPPa 2011n behin betiko onetsi ostean, beste araudi bat onetsi da, jarraian jasotzen dena:

Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (2019ko LAG)

Hauek dira 2019ko LAGaren 3 helburuak, ingurune fisikoari dagokionez:

- Lurzoru urbanizaezinetan kategoria homogeenak ezartzea, kategoria bakoitzeko lurzoruak arautzeko, eta horiek dokumentuetan jasota uztea, bai lurralde-antolamenduan eta bai udal-plangintzan.
- Azpiegitura berdeak: azpiegitura berdeen kontzeptua txertatzea, dagozkien gidalerroak ezartze aldera.
- Ingurumen-espazio esanguratsuenak jasota uztea, horien arteko konektagarritasun ekologikoa lortzeko.

Antolamenduaren kategoriei dagokienez, ikusten da LPPko kategoriak bat datozela LAGekoekin, nahiz eta izendapenetan aldaketa txikiak dauden, eta horiek egokitu egin beharko dira LPParen hurrengo berrikuspenean, eta udalerri bakoitzeko hirigintza-plangintzaren berrikuspenean.

Baldintzatzaile gainjarriei dagokienez, ikus daiteke LPPan jasotzen diren Esteka Korridoreak, I-2 informazio-planokoak, ez datozela bat 2019ko LAGean adierazten diren Korridore Ekologikoekin. Ildo horretan, LAGek honako hau adierazten dute: «EAE osoko korridore ekologikoen sarea Eusko Jaurlaritzan ingurune naturalaren ardura duen arloak definitzen du. Dokumentu honetan (2019ko LAG) irudikapen grafikoa egiteko eta EAEren eskalarako, egindako lanetan bilduta zeuden zenbait korridore kendu egin dira, baina korridore horiek ere kontuan hartu beharko dira lurralde- eta hirigintza-plangintza egiteko. Sare osoa GeoEuskadi atarian ere kontsulta daiteke». Ildo horretan, LPPa eta plangintza orokorrak horretara egokitu beharko dira.

Nekazaritzaren eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektoriala

Gainera, Nekazaritzaren eta Basogintzaren Lurralde Plan Sektoriala behin betiko onartu zen irailaren 16ko 177/2014 Dekretuaren bitartez. Adierazten denez, behin betiko onartutako LPPetan geroago egiten diren aldaketek eta berrikuspenek kontuan hartu beharko dute zer xedatzen duen Nekazaritza eta Basogintzako LPSak balio estrategiko handiko eremuei eta Onura Publikoko Mendiak eta Mendi Babesleak direlakoei buruz. LPPan jasota daude LPSan «Balio Estrategiko Handiko Nekazaritza eta Abeltzaintza eremu» gisa sailkatutako eremuak, O-2 antolamendu-planoan, eta «Erabilera publikoko mendiak» baldintzatzailearen zehaztapenak, I-2 informazio-planoan. «Erabilera publikoko Mendiak» eta «Mendi Babesleak» eremuetako baldintzatzaile gainjarria Ingurune Fisikoaren antolamendu-planoan jaso behar da LPParen hurrengo berrikusketan.

Natura 2000 Sarea

Natura 2000 Sareari dagokionez, eta Balmaseda-Zallako (Enkarterri) LPPa behin betiko onetsi ostean ere, Kontserbazio Bereziko Eremu hauek izendatu dira:

- Armañon (ES2130001), otsailaren 16ko 25/2016 Dekretuaren bidez. Une honetan Armañongo Baliabide Naturalak Antolatzeke Plana onespen-prozesuan dago (behin betikoz onetsi aurretiko fasean)
- Ordunte (ES2130002), maiatzaren 12ko 65/2015 Dekretuaren bidez.

LPPan, bai Armañon eta bai Ordunte Batasunaren Intereseko Lekutzat (BIL) jasota daude I-2 informazio-planoan eta «Naturagune Babestu» gisa, O-1 eta O-2 antolamendu-planoetan. LPParen hurrengo berrikuspenean, espazio horietan onetsitako mugak eta zehaztapen lotesleak eguneratu egin beharko dira.

Toki babestuak

Toki babestuei dagokienez, martxoaren 10aren 26/2015 Dekretuaren bidez, Bizkaiko Meatzaldeko Biotopo Babestua izendatu zen.

LPPak hein handi batean jasotzen du, baina mugak Dekretuaren arabera doitu beharko dira.

Beste batzuk

Argibide gisa, Interes Naturalistakoko Zonei dagokienez, berriki EAEko Interes Geologikoko Tokien Inbentarioa egin du Eusko Jaurlaritzak (Enkarterrin: Burdinazko zainak Laia-Saucon (Galdames), Peñalbako arrapala (Turtzioz), Valnerako kaltzita (Turtzioz), Garbeako hareharriak (Balmaseda-Sopuerta), Aldeacuevako Olistolitoa (Karrantzako harana), Angela de Matienzo meatzea (Karrantzako harana), Raneroko dolomitak, Raneroko plataforma karbonatatuaren marjina eta Karrantzako kolubioiak). LPPak ez ditu Batasunaren Intereseko Leku horiek jasotzen, baina EAEk ez du geodibertsitatearen eta ondare geologikoaren babesa, kontserbazioa eta kudeaketa espezifikoak jasotzen duen arau-esparrurik. LPPak interes geologiko eta geomorfikoa duten beste eremu batzuk zehazten ditu, Batasunaren Intereseko Lekuekin bat ez datozenak.

Ondorioak

1.- Enkarterriko LPPan adierazten diren ingurune fisikoaren antolamendu kategoriei dagokienez, bat datoz ingurune fisikoan eragina duten eta onetsita dauden lurralde antolamenduko dokumentuekin: 2019ko LAGa eta Nekazaritza eta Basogintzako LPSa. LPParen hurrengo berrikuspenean, «Babes bereziko» esparruak babes-figura onetsien arabera berrikusi eta eguneratu behar dira (KBE, biotopo babestuak, eta abar), eta zuzendu egin behar dira kategorien izendapenean izandako aldaketa txikiak.

2.- Baldintzatzaile Gainjarriei dagokienez, ikusten da LPPan jasotako Lotura Korridoreak ez datozela bat 2019ko LAGean adierazten diren Korridore Ekologikoekin, eta LAGek EAE mailako korridore ekologikoen sarea adierazten duten arren, sare hori zehaztea Eusko Jaurlaritzako ingurumeneko arduradunaren eskumena izango da. Ildo horretan, LPParen eta korridore ekologikoen zehaztapenari buruzko plangintza orokorren Berrikuspena horren arabera doitu beharko da eta baldintzatzaile gainjarri gisa jasoko dira. Era berean, Nekazaritza eta Basogintzako LPSari jarraikiz, LPSko «Erabilera publikoko mendiak» eta «Mendi babesleak» baldintzatzaileak jasoko dira.

3.- LPParen ondoren onetsitako udal-plangintza bakarra Artzentaleskoa da (2013ko arau subsidiarioak). Horretan, lurzoru urbanizaezineko babes bereziko eremuak jasotzen dira. Udalerrian ez dago lehen aipaturiko figuretako bat bera ere.

4.- Eremu funtzionaleko gainerako udalerriek LPPaz aurretiko plangintza dute; beraz, ez datoz bat LPPko Ingurune Fisikoaren antolamendu-kategoriekin.

I.2.2. SARE BERDEA**LPParen zehaztapenak**

Naturagune Babestuez eta Paisaia Intereseko Nekazaritza Sistemaz gainera, LPPak «sare berde» deitzen dio lurraldera iristea eta horretaz gozatzea ahalbidetzen duten espazio libre eta ibilbideen multzoari, eta honako espazio hauek proposatzen ditu:

1- Kadaguako Ibai Parkea. Ibaian zeharreko eremuak:

- Aisiarako eremua
- Lorategi botanikoa eta aisia
- Laborantzako eremu esperimentalak
- Faunaren behatokia edo basa-faunaren parkea

2- Ingurumen- eta landa-parkea: kalitate handiko paisaia eta ingurumena duen esparrua, landa-giroarekin eta lehen sektorearekin oso lotuta dagoena.

- Landa-munduari zuzendutako dirulaguntzak.
- Etengabeko prestakuntza-programak.

- Nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiapenerako metodoak hobetzea.
- Landa-garapenera bideratutako Batasuneko eta aldundi-mailako programa espezifikoak.
- Landa-arkitektura edo baserriak birgaitzea, bultzatzea eta babestea.
- Landaguneen turismo-erakargarritasuna sustatzea.
- Landaguneen irisgarritasuna.

3- Lehendik dauden aisia-eremuak: udalerrri bakoitzean indarrean dagoen plangintzan jasota dauden espazio libre eta aisiarako espazio garrantzitsuenen sistemak.

4- Ibilbide naturalistikoak: oinezkoentzako eta bizikletaz edo zaldiz egiteko modukoak.

5- Beste bide-proposamen batzuk: Erromatarren Galtzada, Donejakue Bidea, Bide Berdeak, GR-123, bidegorri-sarea eta abar.

6- Intereseko puntuak:

- Bilbo-La Robla trenbidearen antzinako ibilbidea Kadaguaren korridorea zeharkatzeko bide berde bihurtzea.
- Naturaren interpretazio-zentroak, eremura sartzeko guneeetan.

Proposamena honela zehaztu da: 10. ekintza egituratzailea «Sare Berdea», eta 7. eragiketa estrategikoa, hau da, «Kadaguako Ibai Parkea», eta 01. eragiketa estrategikoa, «Ingurumen- eta landa-parkea».

2019ko LAG

Azpiegitura Berdeen kontzeptuari dagokionez, 2019ko LAGek adierazten dute udal-plangintzak toki-mailako azpiegitura berdetzat hartu behar dituela espazio libreen sistema orokorrak. Halaber, berdin jokatu ahalko da tokiko sistemen kasuan (espazio libreak eta berdeguneak). Gainera, zenbait hezegune sakabanatu adierazten ditu, besteak beste Orduntekoa eta Karrantzako urmaela, eta baita zenbait ur-laster ere, besteak beste Kadagua, Barbadun, Aiega eta Karrantza.

LPParen garapena

Horren zati bat islatuta dago Artzentalesko plangintzan, horretan lehendik dauden aisiarako eremutzat jasotzen baitira Tuetxe-San Antolin eta Santa Kruz-La Toba eremuak.

Bestalde, Zalla eta Otxaran arteko oinezkoentzako sarearen tarte bat egin da, BI-3602 errepidearen ondoan.

Halaber, naturaren interpretazio-zentro bat inauguratu da La Aceñako tren-geltoki zaharrean, Galdamesko bide berdean, eta zenbait bide berde sortu dira.

Konektagarritasun ekologikoari dagokionez, hirigintza-plangintzan adierazi behar da espazio horiek konexio-funtzio hori beteko dutela, eta LAGean zehazten dena funtzio horren adierazgarri izango da.

I.3. LANDA-HABITATA

Lurzoru urbanizaezinetan, erabileraren arabera gainazal-okupazioari dagokionez, udalplaneko egungo datuak honako hauek dira:

UDALPLAN 2019	1(d) 1		1(d) 2		1(d) 3		1(d) 4		1(d) 5		1(d) 6		1(d) 7		1(d) 8	
	Gune irekien S.O.		Babes Berezia		Ingurune Hobekuntza		Basoa		Mendi Larreak		Nekazaritza eta abeltzaintza, eta landazabala		Gainazaleko Uren Babesa		Lurzoru Urbanizazina	
ESPARRUA	S.G. Espacio Libres		Especial protección		Mejora Ambiental		Forestal		Pastos Montanos		Agroanadora y Camuña		Protección de Aguas Superficiales		Suelo no Urbanizable	
ÁMBITO TERRITORIAL	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%	ha	%
UDALERRIAK/MUNICIPIOS																
Artzentales	4	0,10	598	16,33	1	0,01	1.651	45,08	164	4,47	1.055	28,83	126	3,44	3.598	98,27
Karrantza Harana/Valle de	3	0,02	3.807	27,60	0	0,00	0	0,00	0	0,00	9.550	69,22	342	2,48	13.703	99,32
Galdames	81	1,83	1.345	30,32	0	0,00	2.117	47,69	0	0,00	669	15,07	153	3,44	4.365	98,35
Gordexola	3	0,06	349	8,50	0	0,00	150	3,66	0	0,00	3.352	81,65	174	4,25	4.029	98,12
Güeñes	16	0,39	128	3,08	0	0,00	834	20,09	169	4,07	2.546	61,36	172	4,15	3.864	93,13
Lanestosa	0	0,34	0	0,00	0	0,00	38	32,98	0	0,00	21	18,70	25	22,25	85	74,28
Sopuerta	12	0,27	93	2,19	0	0,00	2.690	63,41	0	0,00	1.201	28,30	131	3,10	4.127	97,27
Trucios-Turtzioz	0	0,02	2.030	65,69	0	0,00	497	16,08	0	0,00	458	14,83	73	2,36	3.059	98,98
Balmaseda	9	0,41	0	0,00	548	24,53	1.105	49,43	117	5,24	184	8,25	142	6,34	2.105	94,19
Zalla	14	0,46	1.373	44,04	0	0,00	0	0,00	0	0,00	1.343	43,09	155	4,96	2.885	92,56
EREMU FUNTZIONALK - ÁREAS FUNCIONALES																
Enkarterri	143	0,33	9.724	22,64	549	1,28	9.081	21,14	449	1,05	20.380	47,45	1.493	3,48	41.819	97,37

Zifra globalek adierazten dute eremu funtzionaleko lurzoruaren zati handiena (% 97,37) lurzoru urbanizaezinak direla; horiek honela daude osatuta: % 22,64an, Babes Bereziko lurzoruak; antzeko tamaina du (% 21,14) Basogintza-lurzoruak; eta lurzoru urbanizaezinen azaleraren ia erdia (% 47,45) nekazaritza- eta abeltzaintza-erabilerekin eta landazabalak hartzen dute.

2019ko Udalplanaren arabera, ikusten da eremu funtzionaleko batez besteko biztanleria-dentsitatea oso txikia dela, zehazki, 74 biztanlekoa da km²-ko. Biztanleria eta hiri-azalera kontuan hartzen baditugu, dentsitate hori 2.813 bt/km²-ra igotzen da.

UDALPLAN 2019	BIZTANLERIA / POBLACION		DENTSITATEAK / DENSIDADES			
	Guztira Total		Azalera guztira Superficie Total	2 a Dentsitatea / Densidad	Kalifikatutako hiritar azalera Superficie urb. calificada	2 b Hiritar dentsitatea / Densidad urbana
	Biz. - Hab.		Km ²	Biz./km ² - Hab./km ²	km ²	Biz./km ² -Hab./km ²
LURRALDE ESPARRUA						
ÁMBITO TERRITORIAL						
UDALERRIAK / MUNICIPIOS						
Artzentales	708		36,61	19,34	0,63	1.120,43
Karrantza Harana/Valle de Carranza	2.740		137,93	19,86	0,93	2.935,19
Galdames	831		44,38	18,72	0,73	1.137,42
Gordexola	1.701		41,06	41,43	0,77	2.205,08
Güeñes	6.520		41,47	157,15	2,85	2.286,84
Lanestosa	273		1,15	239,47	0,29	931,10
Sopuerta	2.512		42,43	59,20	1,16	2.166,26
Trucios-Turtzioz	522		30,95	16,89	0,32	1.648,77
Balmaseda	7.579		22,39	339,11	1,30	5.839,88
Zalla	8.420		31,16	270,13	2,32	3.629,31
EREMU FUNTZIONALA / ÁREA FUNCIONAL						
Enkarterri	31.806		429,50	74,05	11,31	2.813,27

Eremu funtzionaleko azaleraren % 70a nekazaritza- eta basogintza-erabilera bideratzen denez, biztanleriaren zati handi bat lurzoru urbanizaezinean sakabanatuta dago, eta, ondorioz, landagune ugari daude. Udalerririk guztien artean, Karrantza haranaren kasua nabarmenena da. Horretan, 2011n, 985 etxebizitza eraiki eta 423 etxebizitza zeuden eraikitzeke lurzoru urbanizaezinean, eta 491 etxebizitza eraiki eta 342 etxebizitza eraikitzeke lurzoru urbanizagarri edo hiri-lurzoruan. Lurzoru urbanizaezinean hiri-bilbearen baino etxebizitza gehiago eraikitzea aurreikusten duen udalerririk bakarra da. Plangintzan ildo horretan lizentzia edo aldaketa asko egon ez denez, proportzio hori mantendu egin da urteotan; hala, 2019ko datuen arabera, 1000/480 ziren lurzoru urbanizaezinean eta 498/367, hiri-bilbearen. Horren atzetik Sopuerta dago; horretan, dauden etxebizitzak heren bat lurzoru urbanizaezinean dago gaur egun (524/38 eta 957/590). Nabarmenena da, halaber, Artzentalesen kasua. Horretan, dauden etxebizitzak % 75 lurzoru urbanizaezinean dago gaur egun (96/102 eta 283/18), baina bertako HAPOan aintzat hartzen da proportzio hori alderantzizkoak, eta egikaritu beharreko etxebizitzak % 80 baino gehiago hiri-bilbearen barruan eraikitzea proposatzen du.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak ez du baimentzen lurzoru urbanizaezinean etxebizitza berriak eraikitzea, nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerari edo landaguneei loturiko etxebizitzak salbu, betiere legearen baldintzak betetzen badituzte.

Bizkaiko Landaguneen Inbentarioari buruzko foru-akordioa

2016ko otsailaren 9ko Foru Akordioaren bidez behin betiko onetsi zen Bizkaiko Landaguneen Inbentarioa. Horretan 6 landagune jasotzen dira Artzentalesen, 1 Balmasedan, 6 Galdamesen, 5 Gordexolan, 44 Karrantza Haranean, 7 Sopuertan, 8 Turtziozen eta 4 Zallan. Puntu honetan, nabarmentzekoa da Karrantza Haranaren kasua, bertako etxebizitzaren 2/3 44 landagunetan banatuta baitaude.

LPParen proposamena

LPPak hiri-lurzoruetako zenbait landagune birdentsifikatzea eta eraldatzea proposatzen du, betiere zenbait baldintza betetzen badituzte, hala nola Soscaño eta La Tejera, hots, Karrantza Haranean dauden bi landagune, Concha-Ambasaguasko hirigunearen ondoan.

LPParen garapena

LPParen proposamena bat dator Lurralde Antolamenduaren Gidalerroekin alderdi horretan.

Bestalde, Karrantza Haraneko HAPOaren Aurrerapenean, proposatzen da Soscaño, La Tejera eta El Callejoko landaguneen erdiguneak hiri-lurzorutzat sailkatzea HAPOan, LAGak eta LPPa betetzeko, nahiz eta azken horretan ez zen El Callejo barne hartzen. Halaber, Aurrerapena Bizkaiko Foru Aldundiaren inbentarioko landaguneetara moldatzen da izenean eta mugetan.

Ondorioa

Lurzoru Urbanizaezinaren izaerari eusteko, ezinbestekoa da dauden landaguneak kontrolatzea eta, ahal den heinean, plangintzaren berrikuspenetan hiri-lurzorutzat birsailkatzea saihestea, LPPak hala zehazten duen kasuetan salbu. Karrantza Haranean landagune ugari daude (44) eta, bertan, HAPOa LPParekin bat etorriko da landaguneetako bi hiri-lurzorutzat birsailkatzeko.

I.4. HIRI-HABITATA

I.4.1 Hiri-sistema

LPParen zehaztapenak

LPPak honela sailkatzen ditu guneak: burutzak (Balmaseda eta Zalla), azpiburutzak (Güeñes eta Sopuerta), gune nagusiak eta bigarren mailako guneak. Halaber, hirugarren sektorearen garapena sustatzea proposatzen du, bai burutzetan eta bai azpiburutzetan:

Hauek dira LPParen helburu nagusiak:

- Ekonomia dibertsifikatzea globalizazio-testuinguru berrian. Era berean, garrantzi handieneko nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorea Enkarterriko eremu mendebaldarrean finkatu behar da (Karrantza Harana, Turtzioz eta Artzentales), biztanleria eta egungo paisaia mantentzeko elementua baita.
- Bizitegiatarako eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruen eskaintza egokia sortzea, mugikortasun jasangarriaren errealitate desberdinekin eta eremuan dagoen lurzoru-ahalmenarekin bat. Gainera, eskualde mugakideetako biztanleen bigarren etxebizitzak eraikitzeko potentziala eta erakargarritasuna aprobetxatu egin behar da.
- Birdentsifikazioko eta erabilera-nahasketako politikak sustatzea, bizitegiatarako lurzoruak hirugarren sektoreko zerbitzu edo jarduerekin bateragarri eginez, jada eraikitakoa balioetsiz, hiriguneak eta udalerrien arteko jarduera biziberritzearen bidez. Proposamen honekin, lurzoruak artifizialtzea saihestu nahi da, eta lurzoru industrialak bizitegi-erabilerarekin bateragarriak diren jarduerekin bete daitezen saihestea.

Udalerriez gaindiko ekipamenduei dagokienez, LPPak beren tamainagatik edo eremu funtzionalerako duten garrantzi estrategikoarengatik udalerriez gaindiko maila duten lau ekintza aurreikusten ditu eta horiek garatzeko espazio espezifikoa gordetzea eskatzen du:

- Mendebaldeko eremurako, eta nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduera mantentze eta hobetze aldera, LPPak lurzorua erabilera tradizionalari loturiko jarduerak aurreikusten ditu, eta balio erantsi handiko beste batzuk, hala nola turismoa:
 - Otides (Karrantza Harana): Sustapen ekonomikora eta nekazaritza- eta abeltzaintza-garapenera zein enpresa-garapenera orientatutako ekipamendua. (16 ha).
 - La Reneja (Artzentales): Sustapen ekonomikoa eta Nekazaritza- eta abeltzaintza-garapena zein enpresa-garapena helburu duen ekipamendua (38 ha).
- LPPak hirugarren proposamen bat du Sopuertarako, bere biztanleria-pisuarengatik eta Muskiztik zein Ezkerraldeetik irisgarritasun bikaina izateagatik azpiburutza bihurtzeko xedea duena. Los Cotarros (Sopuerta): Kirol- eta turismo-ekipamendu handia, golf-zelaia eta turismo-azpiegitura instalatzea eremu mugakidean. (48 ha).
- Zallak Enkarterrin duen zentraltasuna sustatze aldera eta gainerako udalerrietara beharrezkoak ez diren desplazamenduak saiheste aldera, honako hau proposatzen da: Mimetiz (Zalla): Ebazpen handiko ospitalea (0,5 ha).


LPPko zehaztapenak garatzea

LPPak proposatutako ekintza lehenetsiei dagokienez, esan beharra dago La Renejan (Artzentales), ekimen pribatu baten bidez, lehendik zegoen eraikin bat egokitu dela eta eremu bat egokitu dela Sustapen Ekonomikoa eta Nekazaritza- eta abeltzaintza-garapena zein enpresa-garapena helburu duen ekipamenduaren erabilera planifikatua garatzeko.

Paleolitoko labar-artearen Europako lehen interpretazio-zentroa sortu da, KobenKoba deritzona, eta Los Judíos haitzuloko proiektu kultural eta turistikoa, Sangrices auzoan (Karrantza eta Lanestosa artean).

Zallan Suhiltzaile Parkearen Sistema Orokorrari buruzko Plan Berezia izapidetzen ari dira.

2019ko LAG



LPPan proposatzen diren helburuak bat datoz 2019ko LAGekin. LAGetan ez da inolako berrikuntza-nodorik jasotzen (parke logistikoa, teknologikoa, unibertsitatea, hiri-berroneratzea) eremu funtzionalean. Eremu funtzionaleko burutzatzat adierazten dira Zalla eta Balmaseda, eta, eraldaketa-ardatz gisa, berriz, Kadagua harana. Azkenik, eremu funtzionaleko hirigune historikotzat adierazten dira Balmasedakoa eta Lanestosakoa.

I.4.2. Hiri-berroneratzea

LPParen zehaztapenak

LPParen helburu nagusia agertoki berri bat sortzea da, lehendik dauden hiri-esparru garatueta oinarrituta, eta, horretarako, bost esku-hartze mota ezartzen dira:

- Birdentsifikazioa, lehendik dauden hiri-bilbeak osatuz eta bizitegi erabilerarekin bateragarriak diren erabilerak industria-lurzoruetatik bizitegiarako lurzoruetara eramanez. Tren-geltokitik gertu dauden bizitegiarako lurzoruak lehenetsiko dira, hala nola Kadagua Harana edo Artzentales; edota komunikabide nagusietatik gertu dauden industria-kokapenak, hala nola Kadaguaren Korridorea eta Malabrigo eremua.
- Eraikitako ondarearen gaineko jarduketak: merkatuan etxebizitza hutsak berreskuratzea eta intereseko arkitektura-ondarea babestu eta birgaitzea.
- Birmoldaketa: industria-paisaiaren itxura hobetzea, industria-lurzoru hutsak birmoldatu eta garatzea, eta intereseko industria-ondarea babestea.
- Lehengoratzeta: lurzoru ez-bideragarriak desklasifikatzea, hala nola Otxarango B-6 sektorea (Zalla), Ibarako I-5 sektorea (Zalla) eta La Cadena (Karrantza) eta La Aceña (Galdames) harrobiak, besteak beste.
- Entitate birdentsifikagarriak: Malda handiek eta uholde-arriskuak eragindako udalerrietako landaguneak sustatzea, hala nola Karrantza Haraneko Soscaño eta La Tejera gunek.

Hiri-lurzorua eta urbanizagarria. Egungo datuak. Udalplan, 2019.

UDALPLAN 2019	3 (a)	3 (b)	3 (c)
	Lurzoru urbanizagarria hiri lurzoruarekiko portzentaia Porcentaje de suelo urbanizable respecto a suelo urbano %	Egoitzarako lurzoru urbanizagarria urbanizagarri lurzoru osoarekiko portzentaia / Porcentaje de suelo urbanizable residencial respecto a suelo urbanizable total %	Jarduera ekonomikoetarako lurzoru urbanizagarria lurzoru urbanizagarri osoarekiko portzentaia / Porcentaje de suelo urbanizable para AAEE respecto a suelo urbanizable total %
LURRALDE ESPARRUA ÁMBITO TERRITORIAL			
UDALERRIAK / MUNICIPIOS			
Artzentales	25,73	100,00	-
Karrantza Harana/Valle de Carranza	47,04	100,00	-
Galdames	101,40	52,79	47,21
Gordexola	11,83	100,00	-
Güeñes	53,57	40,63	59,37
Lanestosa	20,26	100,00	-
Sopuerta	38,01	100,00	-
Trucios-Turtzioz	12,96	100,00	-
Balmaseda	69,93	29,22	70,78
Zalla	24,75	57,75	42,25
EREMU FUNTZIONALA / ÁREA FUNCIONAL			
Enkarterri	42,66	57,38	42,62

Taula ikusita, ondorioztatzen da eremu funtzionalak behar adina lurzoru urbanizagarri duela bai bizitegiarako lurzoruak bai industriarako lurzoruak garatzeko. Aztertu beharko da kasu batzuetan azalera hori gehiegizkoa den eta, kasu horretan, desklasifikatzea komeni al den.

I.4.3 Hiri-hazkundearen perimetroa

Hiri-hazkundearen perimetroa 2019ko LAGeko figura berri bat da eta, hortaz, LPPak ez du horren inguruan ezer berezirik zehazten. Edozelan ere, LPPak proposatzen dituen birdentsifikazio-jarduketetan lehendik dauden hiri-bilbeak osatzea lehenesten da, batez ere Kadagua eta Karrantza Haranetan, eta horiek bat datoz LAGekin; azken horiek zehazten dute Kadaguaren Korridoreko hiri-hazkundearen perimetroa aipatutako ardatza osatzera eta finkatzera bideratuko

dela. Hurrengo LPPa idazteko orduan, hiri-hazkundearen perimetroa mugatu beharko da, lehendik dagoen bilbeari lotuta, guneen arteko lurralde-hutsuneak babestuz eta zeharkako konexio ekologikoak sustatuz. Hori guztia, LPParen iraunaldian hirigintza-okupazioaren beharra kontuan hartuta.

I.4.4. Jarduera ekonomikoetarako lurzorua

LPParen zehaztapenak

Jarduera Ekonomikoetarako lurzoruei dagokienez, irizpide nagusi gisa, LPParen xedea jarduera ekonomikoak eta bizitegiak berriro orekatzearen aldeko apustua egiten duen lurralde-eredua garatzea da.

Horretarako, bizitegitarako erabilera globaleko garapen berri guztiek eremuaren ehuneko hamabosteko (% 15) erreserba izango dute jarduera ekonomiko osagarriak kokatzeko, eta jarduera ekonomiko osagarritzat hartuko dira txikizkako merkataritza, bulegoak, tailerrak, etxebizitzarekin bateragarria den industria eta ekipamenduetarako erabilera guztiak, hala nola asistentziala edo soziokulturala. Etxebizitzarekin bateragarriak diren erabilera horiek bizitegitarako eremuetan kokatu behar dira, desplazamendu luzeagoak saihesteko moduan eta lurzoru industrial berriak artifizialtzeko beharra murrizteko moduan.

1. Lehendik dauden kokaguneen gaineko esku-hartzeak:

- Birmoldaketa:

Balmaseda: A-3 Virgen de Gracia (2,12 ha); A-5 hiri-gasolindegia (400 m²) sektoreak. Hiriaren itxura hobetzea. Egiteke.

Balmaseda-Zalla: Nocedal (6,00 ha), hirugarren sektoreko merkataritza-ekipamendu handia. Egiteke.

Sopuerta: UEI-2-3-4-5-6 (4 ha) sektoreak, aurreikusitako kirol- eta turismo-ekipamendu handian txertatu beharrekoak. Egiteke.

Gueñes: UE-Padura industrial sektorea (2,44 ha), Sodupe Kooperatiba (0,50 ha)

- Lehengoratzea:

Zalla: I-5 Ibarra sektorea (4,53 ha). Ez da garatu.

Karrantza Harana: La Cadena I-1 Cantera (2,33 ha). Izaerara egokitzea.

Galdames: La Aceña 2 Cantera (10 ha). Izaerara egokitzea.

2 garapen berri:

Karrantza: Las Torcachas (5-6 ha). Minda-instalazioa. Geldiarazita.

Sopuerta-Zalla: Malabrigo (14 ha). «Malabrigoko lotunea». Sustapen publikoa. Garatzeke.

Zalla: Allendelagua (5,00-6,00 ha), lurzoru mistoa, hirugarren sektorea-industrial. Garatzeke.

Sollano (10,00 ha) jarduera mistoa (garatzeke), Nocedal (2,00 ha) hirugarren sektoreko / merkataritzarako eremua (egikaritzeke).

Gueñes: Orbijana (10,75 ha), hirugarren sektorea-industrial. 3,75 ha okupatu dira (7 ha hutsik);

Santxosolo (21 ha), hirugarren sektorea-industrial. Garatzeke.

Sopuerta: gasolindegia (4,60 ha), hirugarren sektorea-industrial. Garatzeke.

Galdames: La Aceña (8,65 ha), lehendik dagoen sektorea handitzea. Egikaritzeke.

Sustapen publikoa eta Eragiketa estrategikoak:

Jarduera ekonomikoetarako lurzoru berrien eskaintza publikoa Zalla eta Sopuerta artean dagoen Malabrigo industrialdean dago (14 ha). LPPak Kadaguaren korridorean jarduera ekonomikoak sustatzea jasotzen du, hala nola eragiketa estrategikoak eta komunikabide nagusiei loturiko jarduerak.

Sustapen ekonomikoa eta nekazaritza eta abeltzaintzako garapena, eta enpresa-garapena: LPPak landaguneei loturiko ekipamendu bigunak proposatzen ditu honako hauetan:

Karrantza Harana: Otides (16 ha-tik, 6,4 ha jarduera ekonomikoetarako)

Artzentaletas: La Reneja (38 ha-tik, 15,20 ha jarduera ekonomikoetarako)

Oro har, industrialdeak trinkotzea planteatzen da, lurzoru-eskaintza birkokatuz eta kontzentratuz.

LPPko proposamenak garatzea

LPPak kalifikatutako lurzoruak 2019ko UDALPLANean jasotako plangintzarekin eta eskuragarri dauden ortoargazki berrienekin alderatu dira, proposamenen garapen-maila egiaztatzeko.

LPPak jarduera ekonomikoetarako ezarritako lurzoru berriak ez dira kalifikatu udal-plangintzan, Orbijana auzoko hirugarren sektoreko eta industriako eremu mistoa izan ezik, Gueñesko hirigunearen hegoaldean, LPPak proposatutakoaren antzeko azalera kalifikatuarekin, 3,75 ha-ko okupazioa baitu, 10,75 ha-ko guztizkoaren gainean.

Gainera, ikusi da Artzentaletas plangintzak 8,86 ha-ko azalera jasotzen duela «La Reneja» esparruan, Ekipamenduetarako sistema orokor gisa, baina esparru horretan ez da azalerarik bideratu Jarduera ekonomikoetara.

Laburbilduz, LPPan kalifikatutako lurzoru gehienek ez dute garapenik izan udal-plangintzan, eta, izan dutenean ere, hein handi batean ez dira egikaritu; beraz, eremu funtzionalak jarduera ekonomikoetara bideratzeko lurzoru hutsa du.

Azkenik, hiri-lurzorua dago, industrialdeez beteta.

Jarduera ekonomikoetarako lurzoru-eskaintza kuantifikatzea

LPPak Eremu funtzionala osatzen duten udalerriak Jarduera Ekonomikoen eta Merkataritza Ekipamenduen LPSan ezarritakoaren arabera sailkatzen ditu.

- Lehentasuneko intereseko udalerriak: Gueñes, Zalla.
- Hazkunde neurritsuko udalerriak: Balmaseda.
- Garapen txikiko udalerriak: Artzentaletas, Karrantza Harana, Galdames, Gordexola, Sopuerta eta Turtzioz.

Enkarterriko eremu funtzionalerako zenbatesten den guztizko azalera 70,39 ha-koa da eta 8 urtera begirako lurzoru-eskaintza maximoak ez du gaindituko LPPan aurreikusten den eskaintza globalaren % 75.

LPSak Gueñeseko lurzoruen sorkuntza publikoko eragiketak adierazten ditu (25/50 ha); baina LPPak lurzoru horiek Zalla eta Sopuerta arteko Malabrigo industrialdera bideratzen ditu (14 ha).

LPSak 200/250 ha artean zehazten ditu jarduera ekonomikoetarako lurzoru-ahalmen gisa. LPPak bitarte hori 110 eta 160-ha-ra murrizten du, eta, horretan, jada kalifikatutako lurzoruak eta plangintzetan hutsik dauden lurzoruak jasotzen dira.

Jarduera ekonomikoen esparruak UDALPLANeko datuen arabera garatzea

LPPeko proposamenak 2011ko eta 2019ko UDALPLANetako azalera okupatu eta hutsen datuekin alderatu dira, baita LPParen behin betiko onespentetik emandako lizentzien azalerarekin (hektareatan) eta eskuragarri dauden ortoargazki berrienekin ere.

UDALERRIA	Azal Jarduera ekonomi- koetarako lurzorua, Ha-tan, UDALPLAN 2011	Azal Okupatua, UDALPLAN 2011	Azal Hutsa, UDALPLAN 2011	Azal Jarduera ekonomi- koetarako lurzorua, Ha-tan, UDALPLAN 2019	Azal Okupatua UDALPLAN 2019	Azal Hutsa, UDALPLAN 2019
ARTZENTALES	0,00	0,00	0,00	0,31	0,31	0,00
BALMASEDA	37,93	14,53	23,40	39,10	15,34	23,76
KARRANTZA (HARANA)	5,91	5,91	0,00	6,31	6,31	0,00
GALDAMES	14,60	3,55	11,05	15,45	3,55	11,90
GORDEXOLA	7,67	7,67	0,00	7,69	7,69	0,00
GUEÑES	49,83	21,30	28,53	54,73	24,80	29,93
LANESTOSA	0,00	0,00	0,00	0	0	0
SOPUERTA	6,07	6,07	0,00	6,32	3,80	2,52
TURTZIOZ	3,00	0,00	3,00	3,00	1,61	1,39
ZALLA	37,37	24,99	12,38	38,74	23,68	15,06
Guztira	162,38	84,02	78,36	171,65	87,09	84,56

LPPan aurreikusitako Jarduera Ekonomikoetarako 110 eta 160 ha-tik, Balmaseda da 2011 eta 2019 bitartean lizentziak eman zituen udalerrri bakarra eremu funtzionalean, 1,08 ha-ko azalerarekin.

UDALPLANeko datuen arabera, LPPa behin betikoz onetsi zenetik, jarduera ekonomikoetarako lurzorua 3,07 ha onetsi dira. 84,56 ha geratzen dira okupatu gabe, batez ere Balmaseda, Galdames, Gueñes eta Zalla udalerrietan banatuta. Sopuerta udalerrriak 3 ha-tan murriztu du bere lurzoru okupatua.

Ondorioak

1.- Aipatzekoa da LPPak jarduera ekonomikoetarako ezarritako lurzoruak ez direla jaso udal-plangintzan, Orbijana auzoko hirugarren sektoreko eta industriako eremu mistoa izan ezik, Gueñesko hirigunearen hegoaldean, LPPak proposatutakoaren antzeko azalera kalifikatuarekin.

2.- Emandako lizentziei erreparatuz gero, 2011-2018 aldian 1,08 ha-ko azalera garatu da Jarduera Ekonomikoetarako, LPPak aurreikusten dituen lurzoru berrien 110 eta 160 ha-tik. UDALPLAN 2019ko datuen arabera, plangintzan kalifikatuta dauden 171,65 ha-tik, 3,07 ha okupatu dira eta 84,56 ha hutsik daude.

3.- Batetik, ondoriozta daiteke LPPan grafiatzen den jarduera ekonomikorako eremu egokien mugatzea zabalegia izan dela; eta, bestetik, jarduera ekonomikorako aurreikusita zeuden lursailak ez direla garatu. Ez da industria-lurzoru berriak ezartzen, eta plangintzan sailkatutako lurzorua partzialki finkatuta dago: kalifikatutako hiri-lurzorua ia finkatuta dago eta lurzoru urbanizagarriak garatu gabe daude, ziurrenik udal-mailan bideragarritasun-arazoak daudelako.

4.- LPPa lurralde-jasangarritasunaren ildoan berrikusi behar da, LAGetan adierazitako hiri-hazkundearen perimetroarekin bat.

I.4.5. Bizitegi-kuantifikazioa

LPParen zehaztapenak

Bi eremu mota daude: Garatutako hiri-esparruak eta garapen berriko eremu lehenetsiak. LPPak dentsitate ertain-altuak eta ertainak ezartzen ditu garapen berriko lehentasunezko eremuetarako.

1. Lehendik dauden kokaguneen gaineko esku-hartzeak:

- Birdentsifikaizoa: Balmaseda
- Lehengoratzea: Zalla (B-6 Otxaran sektorea): desklasifikatzea gomendatzen da

- Entitate birdentsifikagarriak: Landaguneei dagokienez, LPPan horietako zenbait hiri-lurzoru bihurtzea planteatzen da, Landa Habitataria buruzko apartatua jada aipatu den moduan.

2. Garapen berriak:

- Dentsitate ertain-altua:
 - Balmaseda (La Calzada)
 - Zalla (Mimetiz)
 - Gueñes (La Costanilla-La Sier)
- Dentsitate ertaina:
 - Lanestosa (Lanestosa Iparraldea)
 - Artzentales (Traslaviña)
 - Sopuerta (Los Cotarros mendebalde)
 - Sopuerta (Los Cotarros ekialde)
 - Galdames (San Pedro)
 - Gueñes (La Cuadra)
 - Gueñes (La Sier)
 - Gueñes (Sodupe-Etxebarria)
 - Gordexola (Sandamendi-Ligorria)
 - Gordexola (Ibarra)
 - Gordexola (Oxirando)
 - Zalla (Gallardi)
 - Zalla (Aretxaga)

LPPko aurreikuspenak Udal Plangintzan garatzea

LPParen antolamendu-planoetan jasotako proposamenak UDALPLAN 2019an jasotako udal-plangintzarekin alderatu dira, eta udalerrien arabera proposamenen garapen-maila ortoargazkien bidez egiaztatu da.

Nabarmentzekoa da eremu funtzionala osatzen duten hamar udalerrietatik, Artzentalesek bakarrik duela LPP behin betiko onetsi ondoren onartutako plangintza, eta LPPan jasotako proposamenek ez dutela hiri-hazkundearen perimetroaren muga zehatzik agertzen, alegia, garapen-eremuak adierazten dituztela.

Lortutako emaitzetatik, honako hau ikusten da: ARTZENTALESen (arau subsidiarioak, 1. Berrikuspenera, 2013koa), proposatutako garapen berriei dagokienez, LPPak dentsitate ertaineko bi etxebizitza-sektore proposatzen ditu Traslaviñan (6 ha). Sektor horiek ez dira garatu eta ez daude jasota udal-plangintzan. Plangintzan garapen berriak jasotzen dira lurzoru urbanizagarrian.

Azken 3 urteetan, zenbait udalerri jarri dute abian hirigintza-plangintzen izapidetzea: Karrantza Haranak HAPOaren Aurrerapena idatzi du 2020an, Gordexolak 2018an jakinarazi zuen plangintza berrikusteko prozesuaren hasiera (aurrerapenaz aurretikoa), 2014ko HAPOa baliogabetu zuen epai judizialaren ondoren; Balmasedak, 2020an, kontsulta bat hasi du plangintza berrikusteko prozesuaren barruan, eta Lanestosak, berriz, 2018an herritar-kontsulta jarri zuen abian Hirigune Historikoko Erabateko Berreskurapenerako Plan Bereziaren Berrikuspenera buruz.

Babestutako etxebizitzaren sektore-politikak garatzea.

Babes Ofizialeko Etxebizitzaren sustapen publikoko jarduketak Balmaseda, Gueñes eta Zalla udalerrietan zentratzen dira, eta honela banatzen dira:

Lurralde-esparrua	BOE kopuru minimoa, ha
Balmaseda	7,25
Gueñes	31,32
Zalla	42,18

UDALPLANA	2011	2020
Egikaritzeko dauden etxebizitza libreak	3.629	3.689
Egikaritzeko dauden BOE	1.003	1.075
Egungo etxebizitzak	12.601	12.590

OHARRAK:

Artzentalesko plangintzaren berrikuspenean, egikaritu beharreko etxebizitza libreen kopurua 67 etxebizitzatan igo da.

Sopuertako plangintzaren aurreikuspenean 72 BOE gehiago jasotzen dira.

Gordexolan, hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarrietan dauden 170 etxebizitza lurzoru urbanizaezinean egotera pasa dira.

Bizitegi-eskaintza kuantifikatzea. LPParen zehaztapenak

LPPan dagokion indarraldirako eta udalerri bakoitzerako aurreikusitako kuantifikazioa honako taula honetan jasotzen da:

UDALERRIA	8 urte		16 urte	
	GUTXIENKO KOPURUA	KOPURU MAXIMOA	GUTXIENKO KOPURUA	KOPURU MAXIMOA
ARTZENTALES	101	153	134	203
BALMASEDA	743	1.126	988	1.498
KARRANTZA (HARANA)	229	418	305	556
GALDAMES	137	207	182	275
GORDEXOLA	242	374	322	497
GUEÑES	824	1.180	1.096	1.569
LANESTOSA	135	158	180	210
SOPUERTA	348	535	463	712
TURTZIOZ	81	122	108	162
ZALLA	1.141	1.585	1.518	2.108
EREMU FUNTZIONALA, GUZTIRA	3.981	5.858	5.296	7.790

LPPko bizitegi-kuantifikazioko datuak UDALPLAN 2019an jasotako datuekin alderatu dira, proposatutako etxebizitza kopuruaren gainean, eta LPPa behin betiko onetsi zenetik emandako lizentzia kopuruarekin, eta honako koadro honetan jasotzen dira:

UDALERRIA	LEHENDIK DAUDEN ETXEBIZITZAK UDALPLAN 2011 (Bizitegiatarako lurzorua+ Landaguneak)	LEHENDIK DAUDEN ETXEBIZITZAK UDALPLAN 2019 (Bizitegiatarako lurzorua+ Landaguneak)	PROPOSATUTAKO ETXEBIZITZAK, UDALPLAN 2019 (Bizitegiatarako lurzorua+ Landaguneak)	LIZENTZIAK 2011-2018
ARTZENTALES	374	379	120	0
BALMASEDA	3.641	3.720	1.682	20
KARRANTZA (HARANA)	1.476	1.498	775	15
GALDAMES	511	503	166	2
GORDEXOLA	923	903	321	4
GUEÑES	3.139	3.402	933	142
LANESTOSA	202	204	62	26
SOPUERTA	1.427	1.481	628	35
TURTZIOZ	299	300	135	2
ZALLA	3.798	3.839	551	18
GUZTIRA	15.790	16.229	5.373	264

Nabarmentzekoa da 2011ko taulan ez dagoela Gueñesko Landaguneetako etxebizitza kopuruari buruzko daturik (2019an, Gueñesen 247 etxebizitza zeuden eraikita, eta 0 etxebizitza egikaritzeko).

Emandako lizentziei erreparatuz gero, ikus daiteke LPPa 2011n behin betiko onetsi zenetik, eta 2018raino, 264 etxebizitza garatu direla LPPan 2019rako minimotzat ezarritako 3.981 etxebizitzetatik, hau da, aurreikusitako minimoaren % 6,63. 2011 eta 2019 bitartean etxebizitzetan gorakada handiena izan duten udalerriak Balmaseda, Sopuerta eta Zalla dira. Zerrenda honetan ez da Gueñes aintzat hartu, ez dagoelako 2011n lurzoru urbanizaezinean zituen etxebizitzetarako buruzko daturik. Beste muturrean Artzentales, Galdames, Gordexola eta Turtzioz daude; horietan, 0 eta 4 lizentzia bitartean eman dira 2011-2019 aldian, UDALPLANeko datuekin bat. Gainera, ikus daiteke udalerririk guztiek oraindik bizitegitarako ahalmena dutela eta, egindako etxebizitza kopuruarekin, bat bera ere ez dela iritsi 8 urteko epearekin aurreikusitako kuantifikazio minimora.

Plangintzan proposatutako etxebizitzak datuei erreparatuz gero, ikus daiteke Balmasedan, Karrantza eta Sopuertan gaitu egiten dela LPPak 8 urteko epearako proposatutako etxebizitza kopuru maximoa. Bestalde, ikus daiteke Artzentales eta Gordexola, eta batez ere Zalla, ez direla iristen LPPan 16 urteko epearekin proposatzen den etxebizitza kopuru minimora ere.

Oro har, ikus daiteke bizitegi-ahalmena gauzatzea motelduta egon dela LPParen indarraldi-urteetan.

Bizitegi-lurzoruei buruzko lurralde-adierazleak

UDALPLAN 2019	4 (a). EGOITZA GARAPENA - DESARROLLO RESIDENCIAL			4 (b)
	Eguno etxebizitzak Nº de viviendas existentes Etx. - Viv.	Aurreikusten den etxebizitza gehiakuntza Incremento de viviendas previsto Etx. - Viv.	Aurreikusten den etxebizitza gehiakuntza Incremento de viviendas previsto %	Etxebizitza kopurua guztira ehun biztanlekiko Número de viviendas totales por cada cien habitantes Etx./100biz. - Viv./100hab.
LURRALDE ESPARRUA				
ÁMBITO TERRITORIAL				
UDALERRIAK / MUNICIPIOS				
Artzentales	96	102	106,25	27,97
Karrantza Harana/Valle de Carranza	498	367	73,69	31,57
Galdames	265	112	42,26	45,37
Gordexola	508	294	57,87	47,15
Gueñes	3.155	933	29,57	62,70
Lanestosa	184	62	33,70	90,11
Sopuerta	957	590	61,65	61,58
Trucios-Turtzioz	197	104	52,79	57,66
Balmaseda	3.462	1.672	48,30	67,74
Zalla	3.268	528	16,16	45,08
EREMU FUNTZIONALAK - ÁREAS FUNCIONALES				
Enkarterri	12.590	4.764	37,84	54,56

UDALPLAN 2019	5. ETXEBIZITZA DENTSITATEA / DENSIDAD DE VIVIENDA		
	5 (a)	5 (b)	5 (c)
	Egoitzarako hiri lurzoru- dauden etxebizitzak dentsitatea / Densidad de viviendas existente en suelo urbano residencial Etx./ha - Viv./ha	Hiri lurzoru- aurreikusten diren etxebizitzak dentsitatea / Densidad de viviendas prevista en suelo urbano Etx./ha - Viv./ha	Lurzoru urbanizagarria aurreikusten diren etxebizitzak dentsitatea / Densidad de viviendas prevista en suelo urbanizable Etx./ha - Viv./ha
LURRALDE ESPARRUA			
ÁMBITO TERRITORIAL			
UDALERRIAK / MUNICIPIOS			
Artzentales	8,46	11,72	21,67
Karrantza Harana/Valle de Carranza	16,07	19,83	16,13
Galdames	15,41	17,27	6,77
Gordexola	20,51	30,21	16,84
Gueñes	37,18	42,58	20,61
Lanestosa	10,91	13,55	5,92
Sopuerta	19,23	22,41	20,39
Trucios-Turtzioz	9,60	13,69	6,56
Balmaseda	71,75	94,03	50,00
Zalla	50,13	52,28	28,85
EREMU FUNTZIONALAK / ÁREA FUNCIONAL			
Enkarterri	34,14	40,60	21,63

Lehendik dauden etxebizitzaren dentsitatea, bizitegitarako hiri-lurzoruen ha-ko, 20 edo gutxiago da udalerrri guztietan, Gueñes, Balmaseda eta Zallaren kasuan izan ezik.

Bizitegi-eskaintzaren kuantifikazioa 2019ko LAGen arabera.

2019ko LAGetan bizitegi-kuantifikazioaren kalkulu-formula berrikusi da. 2019ko LAGak izapidetzen ari zirenean, udalerrri bakoitzari zegokion kuantifikazioaren kalkulua bidali zitzaion, metodo berriaren arabera. Enkarterri eremu funtzionalaren kasuan, emaitza honako hau da:

UDALERRIA	LPP, 8 urtera Etxebizitza kopuru maximoa	LAG, bizitegi- kuantifikazio maximoa	UDALPLAN 2019 PROPOSATUTAKO ETXEBIZITZAK (Hiri- lurzorua+lurzoru urbanizazina)
ARTZENTALES	153	122	120 (102+18)
BALMASEDA	1.126	572	1.682 (1.672+10)
KARRANTZA (HARANA)	418	172	775 (367+408)
GALDAMES	207	77	166 (112+54)
GORDEXOLA	374	265	321 (294+27)
GUEÑES	1.180	758	933 (933+0)
LANESTOSA	158	19	62 (62+0)
SOPUERTA	535	403	628 (590+38)
TURTZIOZ	122	33	135 (104+31)
ZALLA	1.585	837	551 (528+25)
Guztira	5.858	3.258	5.373

LPPak proposatzen duen bizitegi-kuantifikazioa LAGek lortutako kopurua baino zertxobait handiagoa da: 8 urtera 5.858 etxebizitzako kopuru maximoa izatetik, 3.258 izatera. Ildo horretan, nabarmentzekoa da LPPa eta udal-plangintza LAGetako bizitegi-kuantifikaziora egokitu behar direla.

Zifra horiek UDALPLANaren arabera egikaritzeko geratzen diren etxebizitzekin konparatuz gero, ikus daiteke udalerrri guztietan, Artzentalesen eta Zallan izan ezik, aurreikusitako etxebizitza kopurua handiagoa dela 2019ko LAGek aurreikusitakoa baino. Ildo horretan, Balmaseda eta Karrantza Harana nabarmentzen dira. Beraz, udal-plangintza berrikusteko orduan, etxebizitza kopuru maximoa LAGetan adierazitakora doitzeaz gainera, udalerrri bakoitzaren behar erreala aztertu behar dira eta bizitegitarako lurzoru urbanizagarriak desklasifikatzeko aukera aztertu behar da.

Landaguneak eta bizitegi-kuantifikazioa

Puntu hori «Landa-habitata» apartatuan garatu da. Landaguneak eremu funtzionalaren barruan kontrolatu beharreko puntu garrantzitsua dira, halako asko daudelako ia udalerrri guztietan eta, batez ere, Karrantza Haranean.

UDALERRIA	Egungo etxebizitzak, hiri-lurzoruan	Aurreikusitako etxebizitzak, hiri-lurzoruan	Egungo etxebizitzak, lurzoru urbanizaezinean	Egungo etxebizitzak, landagunean	Aurreikusitako etxebizitzak, landagunean
ARTZENTALES	96	102	283	56	18
BALMASEDA	3.462	1.672	258	24	10
KARRANTZA (HARANA)	498	367	1.000	748	408
GALDAMES	265	112	238	114	54
GORDEXOLA	508	294	395	100	27
GUEÑES	3.155	933	247	0	0
LANESTOSA	184	62	20	0	0
SOPUERTA	957	590	524	152	38
TURTZIOZ	197	104	103	73	31
ZALLA	3.268	528	571	159	23
Guztira	12.590	4.764	3639	1.426	609

Taulan ikus daitekeenez, landaguneetan etxebizitza kopurua gutxi haztea espero da. Edozelan ere, Karrantza Haranean, landagunean etxebizitza berri gehiago aurreikusi dira lurzoru kalifikatueta baino (408 eta 367, hurrenez hurren). Beste maila batean, nabarmentzekoa da Galdamesen kasua ere. Horretan, landaguneetako etxebizitza kopurua, bai lehendik daudenena bai aurreikusiena, lurzoru kalifikatueta etxebizitza kopuruaren erdia da. Gauza bera gertatzen da Turtziozen ere, non proportzioa heren batera jaisten baita.

Udalerri gehienetan, landaguneek pisu handia dute udalerriko etxebizitza kopuruan, nahiz eta kasu gehienetan asmoa etxebizitza berriak hiri-lurzoruetara zuzentzea den, Karrantza Haranaren, Galdamesen eta Turtziozen kasuetan izan ezik.

LPParen zehaztapenak

LPPak hiri-lurzoruetako zenbait landagune birdentsifikatzea eta eraldatzea proposatzen du, betiere zenbait baldintza betetzen badituzte, hala nola Soscaño eta La Tejera, hots, Karrantza Haranean dauden bi landagune, Concha-Ambasaguasko hirigunearen ondoan. Udalerri bakoitzaren plangintzaren berrikuspenean gai hau modu berezian aztertzeke beharra adierazten da, eta LPPan, eremu funtzionalaren mailan.

Bizkaiko Landaguneen Inbentarioa

2016ko otsailaren 9ko Foru Akordioaren bidez behin betiko onetsi zen Bizkaiko Landaguneen Inbentarioa. Horretan 6 landagune jasotzen dira Artzentalesen, 1 Balmasedan, 6 Galdamesen, 5 Gordexolan, 44 Karrantza Haranean, 7 Sopuertan, 8 Turtziozen eta 4 Zallan. Udalerriek inbentario honetan adierazten denera egokitzeko betebeharra dute. Inbentarioak landagune bakoitzaren izena, mugak eta ezaugarriak jasotzen ditu.

Hirigintza-plangintzaren berrikuspena

Hirigintza-plangintzei dagokienez, esan beharra dago gehienek ez dituztela berrikusi Lurzoruei eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea onetsi ostean. Lege horren arabera, udalak behartuta daude 8 urteko epean beren plangintza berrikustera. Ondoren, epe hori 15 urtera luzatu zen, Lurzoruei eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea onesten zuen 2/2014 Legearen bitartez. Hirigintzaren egoera, une honetan, honako hau da:

Artzentales,	HAPO, 2013	Lanestosa,	arau subsidiarioak, 1992
Balmaseda,	arau subsidiarioak, 2004	Sopuerta,	arau subsidiarioak, 2004
Galdames,	arau subsidiarioak, 2003	Turtzioz,	arau subsidiarioak, 1998
Gordexola,	arau subsidiarioak, 1998	Karrantza,	arau subsidiarioak, 1991
Gueñes,	arau subsidiarioak, 2006	Zalla	arau subsidiarioak, 1999

Artzentalesko udalak bere plangintza berrikusi zuen eta behin betiko onartu zuen 2013an. Azken 3 urteetan, zenbait udalerri jarri dute abian hirigintza-plangintzen izapidetzea: Karrantza Haranak HAPOaren Aurrerapena idatzi du 2020an, Gordexolak 2018an jakinarazi zuen

plangintza berrikusteko prozesuaren hasiera (aurrerapenaz aurretikoa), 2014ko HAPOa baliogabetu zuen epai judizialaren ondoren; Balmasedak, 2020an, kontsulta bat hasi du plangintza berrikusteko prozesuaren barruan, eta Lanestosak, berriz, 2018an herritar-kontsulta jarri zuen abian Hirigune Historikoko Erabateko Berreskurapenerako Plan Bereziaren Berrikuspenari buruz.

Ondorioa

Eremu funtzionaleko udalerri guztietako plangintza berrikusi behar da, Artzentaleskoa izan ezik (2013an onetsi zen), honako arrazoi hauek direla eta:

- 1.- Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak horretara behartzen du.
- 2.- LPParen bizitegi-kuantifikazioari buruzko proposamena (5.858) askoz handiagoa da 2019ko LAGetakoa baino (3.258); beraz, plangintza LAGetako kuantifikaziora egokitu beharko da.
- 3.- Udal-aurreikuspenen gauzape-maila eskasa, hots, guztira 264 etxebizitza eraiki izana (aurreikusitakoaren % 7 baino gutxiago), behar errealetara egokitzeko premiaren adierazle da.
- 4.- Landaguneak Bizkaiko Landaguneen Inbentariora eta LPPan adierazitakora egokitu behar dira.
- 5.- Landagune guztien bizitegi-ahalmena udalerri bakoitzaren kuantifikazioaren kalkulu orokorrean sartzea gomendatzen da.
- 6.- Karrantza Haranaren, Galdamesen eta Turtziozen kasuan, hirigune nagusia sustatzea aztertu behar da, eta etxebizitza berrien aurreikuspena landaguneetatik hirigune nagusira lekualdatzea.

I.4.6 Plangintzak bateragarri egitea

LPPak adierazten du Balmaseda eta Zallako udalek batera jardungo dutela Balmaseda sarreran aurreikusitako hirugarren sektoreko eta merkataritzako ekipamendua eta horri lotutako poligonoa ezartzen. LAGek adierazten dute ekintza hori plangintzak Bateratzeko Plan baten bitartez egin behar dela.

I.5 PAISAIA, KULTURA- ETA NATURA-ONDAREA, ETA BALIABIDE TURISTIKOAK

I.5.1 Paisaia

LPParen zehaztapenak

Oro har, LPPak garrantzi handia ematen dio paisaiaren gaiari: paisaia jasotzen da ingurumena babesteari eta nekazaritza- eta abeltzaintzari buruzko zehaztapenetan; baita meatzaritzari loturiko lurpeko paisaiak eta horiek balioestea ere, herritar eta bisitariek horietaz goza ahal izan dezaten, ongizateari eta turismoari lotuz.

Etengabe aipatzen da mosaiko erako paisaia eta landazabal atlantikoa; zonifikazio bati «trantsizioko landa-paisaia» deitzen dio; paisaiak «Ingurumen- eta Landa-parkean» duen garrantzia azpimarratzen du, paisaia-balioa duten nekazaritza-sistemak babestuz (OE-10); Ingurune Fisikoaren gaineko antolamendu-planoan zedarritzen ditu, paisaia-aniztasuna murriztea eta sinplifikatzea aipatzen du, baita monolaborantzen inpaktu negatiboa ere; eta behar adina balioesten ez diren paisaiak aztertzea proposatzen du, hala nola baso- eta artzain-kulturari loturikoak eta meatzaritza-jardurei loturikoak.

Paisaiako elementu negatiboak ere hautematen ditu, hala nola txabolak ugaritzea, zenbait espezie desagertzea, eta abar. Nabarmentzekoa da Gueñesko azpiestazio elektrikoak paisaian eragiten duen inpaktu handia, eta goi-tentsioko La Jara-Vallegón linea ekialderago jartzea proposatzen du, ez dadin igaro «paisaiako nekazaritza-sistematik».

Galdamesko San Pedron eta Karrantza Haraneko minda-instalazioan jarduketak egiteko orduan paisaia-azterketak egitea ere eskatzen du, «Paisaia Berezi eta Bikainen Katalogoaren aurreproiektuan» katalogatuta egoteagatik, eta tokiko errepideak hobetzea.

Gainera, «paisaia kultural» terminoa jasotzen du eta, landaguneen kasuan, zenbait zehaztapen ezartzen ditu honako hauei buruz:

- Intereseko higiezinak eta horien multzoak babestea.
- Lehendik dauden tipologietara moldatzea
- Sarbideen azterketa
- Hiri-ekipamendu eta -altzariak
- Ingurumen- eta paisaia-balorazioa

Azkenik, industria birmoldatzeko jarduketetan jasotzen da horien itxura hobetu behar dela, integratzen den hiri-ingurunera moldatuz.

LAG

LAGetan zehazten da paisaiak erreferentzia izan behar duela lurraldearen antolamenduan, eta modu integrarean hartu behar dela kontuan, paisaia bikainak eta arruntak aintzat hartuz, kalteberenak babesteko eta degradatuak lehengoratzeko neurrien bitartez.

Paisaia-arloko Gidalerroei buruzko 21. artikuluan honako hau adierazten da:

21.10. Lurralde Plan Partzialetan beren Eremu Funtzionalari eta eragin-eremuari dagozkien paisaia-zehaztapenak bildu beharko dira, paisaia kudeatu, babestu eta antolatzeko dagozkion tresnen (Paisaiaren katalogoak adibidez) ondorio direnak.

LPPko zehaztapenak garatzea

Eremu funtzionalak paisaiaren katalogoa eta zehaztapenak ditu, eta horiek izan ziren LPParen lehen aldaketaren oinarria. Aldaketa behin betiko onetsi zen 2018an, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren irailaren 18ko 133/2018 Dekretuaren bidez, eta Eusko Jaurlaritzak sustatu zuen. Aldaketak LPPan adierazitakoa jasotzen du eta osatu egiten du Paisaia Unitate eta Paisaia Interes Berezikiko Eremuetarako zehaztapen orokor eta espezifikoak bitartez, esparru bakoitzeko kalitate-helburuen arabera.

Gainera, eremu funtzionaleko udalerrien erdiak Paisaiaren Ekintza Plana du: Karrantza Harana (Mayor ibaia), Balmaseda (Gazteluko muinoa), Zalla, Sopuerta (Mendi- eta meatzaritza-paisaia), Galdames (meatzaritza-paisaiak). Lan horiek LPPan adierazitakoa garatzen dute.

Ondorioak

Hortaz, ondorioztatzen da eremu funtzionalak tresna garrantzitsuak dituela paisaia babestu, kudeatu eta antolatzeko, eta LPPa bat datorrela LAGekin arlo horretan. Hurrengo berrikusketetan, arlo horretako zehaztapenak kapitulu espezifikoak izango dute.

I.5.2 Kultura-ondarea

LPParen zehaztapenak

LPParen arabera, intereseko ondare arkitektonikoa kontserbatzea eta horren balio kulturalak mantentzeko esku-hartzea izan behar dira birgaitze- eta berreskuratze-politikaren premisa, betiere kultura-ondarearen arloko indarreko legeria sektorialaren arabera. Helburu orokorra katalogatutako eta inbentariatutako kultura-ondarea hobetzea da, eta hor baserriak, dorretxeak, ermitak, haitzuloak eta meategiak nabarmentzen dira, eta ondare horrek turismoa erakartzeko duen balioa sustatzea.

LPPak Balmasedako eta Lanestosako Hirigune Historikoak hobetzea proposatzen du, 2. eragiketa estrategikoan, «Balmaseda, identitatea eta aukera», eta 11. eragiketa estrategikoan, «Lanestosa berroneratzea».

Halaber, LPPak ohartarazten du ez dagoela babes bereziko figura bat Erromatarren Galtzadarako, eremutik igarotzen den zatian, eta kautelaz Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legea aplikatzearen aldeko hautua egiten du; hala, elementu horri eragiten dioten lan guztiek proiektu arkeologikoa aurkeztu beharko dute Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean, onetsi ahal izateko. Erromatarren Galtzada sustatzea proposatzen du, baita Donejakue Bidea sustatzea ere.

Gainera, Gordexolan bi ibilbide kultural planteatzen dira: 12. eragiketa estrategikoa, «Gordexolako bide kulturala», eta Oxidando eta Albitxu auzoen artean lehendik zegoen galtzada zaharra finkatzea.

Azkenik, eraikitako ondare industrialak katalogatzea eta babestea proposatzen da, baita Los Cotarrosen (Sopuerta) kirol- eta turismo-ekipamendu handi bat eraikitzea ere.

LAG

LAGen memoriak adierazten du kultura-ondarearen antolamenduak inplikaturako araudi sektorialen arteko koordinazioa eta lankidetzak sustatu behar duela, ondare hori kontserbatzeko eta balioan jartzeko premiei erantzunez, lurralde- eta hirigintza-eskala desberdinetara egokitutako ikuspegi integral bati jarraikiz.

Lurralde Plan Partzialetarako, honako hau adierazten du 22. artikuluan:

22.1. art. Lurralde Plan Partzialetan euskal kultura-ondarea bere osotasunean bildu behar da, tipologien arabera egituratuta: kultura-ondare materiala (higiezina eta higigarria) eta kultura-ondare immateriala.

2019ko LAGetan Balmasedako eta Lanestosako Hirigune Historikoak daude jasota.

LPPko zehaztapenak garatzea

LPPan hirigune historikoei loturik dauden proposamenei eta horien garapen-mailari dagokienez, adierazten da Lanestosa hirigune historikoa birgaitzeko plan berezia izapidetzen ari dela.

Ondorioak

1.- Ez da aurrerapen adierazgarririk hautematen LPPak proposatzen dituen ildo estrategikoetan.

2.- LPPak ez du jasotzen Eusko Jaurlaritzaren Kultura Ondarearen Zuzendaritzak egindako kultura-ondasun kalifikatu eta inbentariatuaren zerrenda. LAGak betez, Lurralde Plan Partzialaren hurrengo berrikuspenean, kultura-ondare osoa barne hartu behar da, tipologia desberdinen arabera egituratuta: kultura-ondare materiala (higiezina eta higigarria) eta kultura-ondare immateriala.

I.5.3 Natura-ondarea

LPPan eremu funtzionaleko natura-ondarearen garrantzia eta berezitasuna nabarmentzen da, beren natura-balioarengatik «Gorde eta hobetu beharreko elementu bereziak» zehaztu, eta horien gaineko jarduketak mugatzen dira. Honela sailkatzen dira: korridore ekologikoak, interes geologiko eta geomorfologikoko eremuak, paisaia-balioa duten nekazaritza-sistemak eta mehatxupean dauden flora- eta fauna-espezieen babes-eremuak. Gainera, «Sare berdearen» kontzeptua jasotzen da, alegia, aisia-eremu handiz, oinezkoentzako eta bizikletentzako bideen sareaz eta naturaren interpretazio-zentroez osatutako sistema.

Eduki hori garatu da jada Ingurune Fisikoari buruzko apartatuan.

I.5.4 Baliabide turistikoak

LPParen zehaztapenak

LPPak turismo-jarduera natura-, kultura- eta nekazaritza-balioak dituzten guneetarantz bideratzen du. Natura-balioen artean, geologikoak nabarmentzen dira, eremu karstikoetako haitzuloengatik (Pozalagua) eta meatzaritza-tradizioarengatik. LPPan 10. ekintza egituratzailea proposatzen da: Sare berdea. Ekintza horren xedea intereseko ondare-elementuak nabarmentzea da, herritarrek eta bisitariek horietaz gozatu ahal izan dezaten. Hortaz, espazio babestuak zein ez babestuak hartzen ditu barnean, turismo- eta aisia-erabilerarako egokiak diren aldetik. Sare Berdearen barruan sartzen dira espazio horiek lotzen dituzten baliabide motorgabeentzako bideak edota berez direnak erakargarriak, hala nola bide berdeak. Puntu hau oinezkoentzako eta bizikletentzako mugikortasunari buruzko apartatuan garatu da jada.

LPPak Molinarko bainuetxea (Karrantza Harana) nabarmentzen du turismo-instalazioen artean, eta naturaren interpretazio-zentro hauek proposatzen dira lurralderako sarguneetan: Toba de Arriba (Artzentales), Peña del Cuervo (Balmaseda), El Bortal (Galdames), El Cerro (Turtzioz), Ranero eta Aldecueva (Karrantza Harana); eta kirol- eta turismo-ekipamendu handi bat eraikitzea (golferako) Los Cotarrosen (Sopuerta), baita horri zerbitzu emateko ostatuak ere.

LPPko zehaztapenak garatzea

Enkarterrin, turismoa ingurumenarekin loturiko jardueretan oinarritzen da. 2013an Naturaren Interpretazio Zentro bat inauguratu zen La Aceña tren-geltoki zaharrean, Galdamesko bide berdean. Zabalik dago, halaber, Armañon parkeko eta Ordunte mendietako Interpretazio Zentroa, Karrantza Haraneko Ranero auzoan.

Gainera, paleolitoko labar-artearen Europako lehen interpretazio-zentroa sortu da, KobenKoba deritzona; Los Judíos haitzuloko proiektu kultural eta turistikoa, Sangrices auzoan (Karrantza eta Lanestosa artean).

Sopuertan egitekoak ziren kirol-ekipamendu handia oraindik ez dute eraiki.

Eremu funtzionalean, Enkarterren arabera, 11 museo-jarduera edo antzeko daude, 8 jatetxe eta 28 ostatu, funtsean landetxeak, apartamentuak eta hotelak.

Ondorioak

Eremu Funtzionala LPPko proposamenen arabera ari da jarduerak eta espazioak sustatzen, natura-ondarea babestea eta balioan jartzea modu orekatuan bultzatuta. Zehaztapen horiek bat datoz lurralde-antolamenduko egungo tresnetakoekin.

I.6 BALIABIDEEN KUDEAKETA JASANGARRIA

I.6.1 Ura: Hornikuntza. Saneamendua eta arazketa.

LPParen zehaztapenak

LPPak honako hauek proposatzen ditu:

- Meldebalderen dauden udalerrien hornikuntza hobetzea (Karrantza Harana eta Lanestosa). Urmael berria Karrantza Haranean, Aldecueva gunearen ondoan.
- Ur edangarriko araztegiak eraikitzea (Lanestosa, Turtzioz eta Artzentales).
- Hondakin-uren araztegi berriak Turtziozen, Karrantza Haranean, Artzentalesen, Sopuertan eta Lanestosan.
- Minda-tratamendurako Instalazio bat egikaritzea Las Torcachas landagunearen ondoan (Karrantza Harana).

Azkenik, eremu funtzionaleko udalerri guztiak Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoan erabat integratzea gomendatzen da, baita instituzio-babesa ematea ere, batez ere landaguneetako hondakin-uren arazketaren arazoa konpontzeko.

LPPko zehaztapenak garatzea

Enkarterrin mendebalderen dauden udalerrien hornikuntza indartzeko lanen lehen fasea egikaritu da, baita Artzentalesko Edateko Uren Araztegia ere. Halaber, hondakin-uren araztegiak egikaritu dira Lanestosan, Artzentalesen, Turtziozen eta Sopuertan.

Egikaritzen ari da Kadaguako uholdeen kontrako babes-proiektua, Mimetizetik (Zalla) pasatzen den eremuan.

Minda-tratamenduaren instalazioa egikaritzen hasi zen, baina geldiarazi egin zen epai judizial baten bidez (2018ko Ebazpena).

Artzentales, Karrantza Harana eta Lanestosa ez daude Ur Partzuergora atxikita; Turtzioz 2013an atxiki zen eta gainerako udalerriak jada kide ziren.

Ondorioa

Oro har, LPPko proposamenak behar bezala ari dira garatzen, baina minda-tratamenduari konponbidea eman beharko litzaioke.

I.6.2 Energia

I.6.2.1. Energia elektrikoa

LPParen zehaztapenak

Plan honetan banaketa-zerbitzua hobetzea, autohornikuntza bilatzea eta azpiegituren igarobidea hobetzea proposatzen da, oro har, eta, zehazki, ekialderago geratzen den La Jara-Vallegón 220 Kv-ko goi-tentsioko airetiko elektrizitate-linea berriaren ibilbiderako alternatiba bat ezartzea Espainiako Sare Elektrikoaren azterketan.

Politika sektorialak

Sare Elektrikoaren Garapenerako 2015-2020 Planean, RED ELÉCTRICA ESPAÑOLak energia elektrikoa garraiatzeko 400 kV-ko zirkuitu bikoitzeko goi-tentsioko airetiko linea bat eraikitzea proiektatu du, «Gueñes-Itsaso» deritzona, eta horrek Gueñesko azpiestazioa Itsasokoarekin konektatuko du. Jarduketa horri esker, 400 kV-ko Iparraldeko ardatza amaitu ahal izango da, Galizia eta EAE konektatuko ditu, etorkizuneko Kantauri-Mediterraneo ardatzarekiko lotura izango da eta Frantziarekiko konexioa indartuko du. Desjabetzea abian jarri da.

Ez dago La Jara-Vallegón tarterako alternatibarik.

Ondorioa

Arlo honetan, ez da aurreikusitakotik ezer egin. Eremu funtzionala natura-ondarearekin oso konektatuta dago, jarduera askoren oinarria baita, eta, ildo horretan, trazadura elektrikoa aldatzen tematu behar da, natura-ondarea babeste aldera.

I.6.2.2. Ordezko energiak.

LPParen zehaztapenak

Planak energia alternatiboak ezartzera bideratutako proposamenak egiten ditu:

-Industria-kogenerazioa.

-Nekazaritza-kogenerazioa.

-Biomasa-instalazio bat ezartzea, zurgintzako eta basogintzako hondakinak tratatzeko (Balmasedan).

Politika sektorialak

Basogintza-biomasako instalazio bat ezarri zen Zallan.

Ondorioak

Arlo honetan, ez da aurreikusitakotik ezer egin.

I.6.2.3. Telekomunikazioak.

LPParen zehaztapenak

LPParen helburua eremu funtzionaleko telekomunikazio-sarea hobetzea da, batez ere landaguneen zerbitzuan.

Politika sektorialak

LAGak hobekuntza horrekin bat datoz, ezinbestekoa baita landaguneen eta hiriguneen arteko arrakala digitala txikiagotzeko. Telekomunikazio-zerbitzu egokia izatea ezinbestekoa da telelanean, bideokonferentzietan, merkataritza-plataforma digitaletan eta abarretan oinarritutako lan-politikak garatzeko, baita hezkuntza-politikak, online ikasketak, urrutiko unibertsitatea izateko edo aisia-eskaintza anitza izateko ere. Gakoa da, komunikazio fisiko zaileko eremu funtzional batean.

Ondorioak

Arlo honen garapen-maila ez da ezagutzen, baina udalerriz gaindiko mailan tratatu beharko litzateke, komunikazio digitalak landaguneetan eta, hortaz, eremu funtzional honetan duen garrantziaren ondorioz.

I.6.3 Ekonomia zirkularra

I.6.3.1. Hondakin solidoak

LPParen zehaztapenak

LPPak hondakin guztiak birziklatzearen aldeko apustua egiten du (hondakin organikoak, papera, beira eta plastikoa). Horretarako, hondakinen gaikako bilketa sustatzea eta erraztea proposatzen du, eta hondakindegia kontrolatuak erabiltzea birziklatzen ez diren hondakinentzako. Hala, «Puntu Garbien» edo Garbiguneen sarearen zerbitzua hobetuko da, mugikortasuna murriztuz eta gaikako bilketa zentralizatzeko foku batzuk sortuz. «Puntu Garbien» edo Garbiguneen sarea gaur egun Karrantza Haranekoak, Zallakoak eta Gueñeskoak (Sodupe)osatzen dute. Biztanleria sakabanatuta dagoenez, LPPak zentro berriak proposatzen ditu Sopuertan (La Baluga) eta Zallan (La Calzadilla), azken hori industria-hondakinei lotua.

Halaber, Balmasedan biomasa-instalazio bat ezartzea proposatzen da, zurgintzako eta basogintzako hondakinak tratatzeko.

Hondakin solidoen arloko proposamen zehatzak 13. ekintza egituratzailean, «Hondakinen kudeaketa», ageri dira jasota; hori II. eranskinean ageri da: «ekintza egituratzaileak eta eragiketa estrategikoak».

Politika sektorialak

Gaur egun, eremu funtzionalean hiru garbiguneak mantentzen dira (Karrantza Harana, Zalla eta Gueñes), baina ez da instalatu LPPan proposatutakoetako bat bera ere, ezta besterik ere.

Biomasa-instalazio bat ezarri da Zallako paper-fabrika zaharrean.

Ondorioak

Hortaz, ondorioztatzen denez, LPPa arlo honetan LAGekin bat etorri arren, eremu funtzionalak ez du aurrerapenik egin 2011-2019 aldi honetan.

I.6.3.2. Lurzorua baliabide

LPParen zehaztapenak

Aurreko ataletan azaldu dira LPParen zehaztapenak jada artifizialdutako lurzorua birmoldaketaren, lehengoratzearen, eraikitako ondarearen gaineko jarduketan eta birdentsifikazioaren bidez berrerabiltzeari buruz.

Berroneratzeko edo berritzeko estrategiak zehazteko orduan, lurzoru kutsatuak erabiltzea lehenetsiko da, behin saneatu eta garapenerako berreskuratu ostean.

Harrobiei dagokienez (dagokien LPSak arautzen ditu), ezin izango da jarduera berririk kokatu Naturagune Babestuetan. Lehen ere aipatu da La Cadena (Karrantza) eta La Aceña (Galdames) harrobiak lehengoratzeko betebeharra.

Politika sektorialak

LPPko zehaztapenak bat datoz 2019ko LAGekin.

Kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen Euskadiko inbentarioaren arabera, Enkarterrin, kutsatuta egon daitezkeen lurzoru kutsatu gehienak Kadagua Haranean daude, eta zati bat Gordexolan, Sopuertan eta Karrantza Haranean. Gainerakoan, lurzoru batzuk daude kokatuta puntualki.

Harrobiei dagokienez, Karrantza Haranean eta Galdamesen ustiapen-proiektu bat / biziberritze-plan bat daude Ventalaperra eta Galdames II harrobietarako, hurrenez hurren, harrobiak naturagune bihurtzeko helburuarekin, behin bertako jarduera amaitu ostean; hori da, hain zuzen ere, La Aceña (Galdames) harrobiarekin egin dena, gaur egun Atxuriaga parke bihurtuta.

Ondorioak

Hortaz, ondoriozta daiteke LPPa bat datorrela LAGekin arlo honetan.

I.7 MUGIKORTASUNA ETA LOGISTIKA

I.7.1 Mugikortasun multimodala

LPParen zehaztapenak

LPPak tren-autobus-autoentzako intermodalitate-puntuak proposatzen ditu zenbait tren-geltokitan: Sodupe, Aranguren, Mimetiz (Zalla), Balmaseda eta Ambasaguas, Karrantza Haranean.

Politika sektorialak

Zallako arau subsidiarioen aldaketan, gaur egun izapidetze-fasean, Aranguren berrantolatzea aurreikusten da, eta tren-geltokiaren ondoan disuasio-aparkaleku bat eraikitzea. LPPan proposatzen diren gainerako udalerrietan aparkaleku txikiak daude tren-geltokien ondoan.

I.7.2 Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna

LPParen zehaztapenak

Planak Ibilbide Naturalistikoaren aldeko apustua egiten du, eguneroko mugikortasunari eta aisiari zerbitzu emateko. Oinezkoentzako eta bizikletentzako ibilbideetan banatzen dira. Proposamena

honela zehaztu da: 10. ekintza egituratzailea «Sare Berdea», eta 7. eragiketa estrategikoa, hau da, «Kadaguako Ibai Parkea», eta 01. eragiketa estrategikoa, «Ingurumen- eta landa-parkea». Gainera, LPPak proposamen hauek egiten ditu: Enkarterritik igarotzen den Erromatarren Galtzada babestea, Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legea aplikatuz, eta Bilbo-La Robla trenbidea Kadaguan zeharreko bide berde bihurtzea (Balmaseda-Zalla- Gueñes-Sodupe), eta naturaren interpretazio-zentroak ezartzea.

Politika sektorialak

Bizikletentzako bideei dagokienez, Bizkaiko Bizikletaren Plan Nagusia (2003-2016) bat dator LPParekin.

Erabiltzen ez ziren zenbait trenbide-tarte bide berde bihurtzeko moldatu dira: Burdinmendi bide berdea (Castro-Traslaviña trena), Galdamesko bide berdea eta Itsas lur bide berdearen eta Galdameskoaren arteko lotura.

Hobekuntzak egin dira BI-3602 errepidean eta, hala, jarraipena eman zaio Zalla eta Otxaran arteko oinezkoentzako sareari.

I.7.3 Bide-mugikortasuna

LPParen zehaztapenak

Planak honako proposamen hauek proiektatzen ditu eremu funtzionalerako:

- 1-Malabrigoko lotura.
- 2-Iparaldeko ardatza.
- 3-Mendebaldeko eremuaren irisgarritasuna hobetzea.
- 4-Kadaguako Korridorea zabaltzea.
- 5-Hiri-saihesbideak Lanestosan, Turtziozen eta Sopuertan, eta hiri-kaleak birmoldatzea Sodupen, Gueñesen, Aranguren eta Mimetizen.

Errepideetako politika sektorialak

Euskal Autonomia Erkidegoko 2017-2028 aldirako Errepideen 3. Plan Orokorra bat dator LPPan adierazten denarekin, ez ordea ehuneko ehunean. Plan Orokorrean, Lehentasuneko Interesen Sareko jarduketaren proposamenen barruan, Lanestosako saihesbidea dago jasota, N-629 errepidearen barruan, eta Sustapen Ministerioaren ardurapekoa da; eta Oinarrizko Sarearen barruan dauden artean, BI-630 errepidean jardutea proposatzen da, Malabrigo-Turtzioz eta La Escrita-Ambasaguas tartetan, eta Balmasedako saihesbideko bide geldoa amaitzea.

I.7.4 Tren- eta hegazkin-mugikortasuna.

LPParen zehaztapenak

Tren-garraioari dagokionez, LPPak honako hauek jasotzen ditu:

- Balmaseda-Zaramillo trenbidea zabaltzea.
- Mimetizko trenbide-sarea tratatzea.
- Bilbo-Santander trenbide-sarea sustatzea.
- Intermodalitate-puntuak.

Eta FEVEren tren-geltokietarako, honako hauek proposatzen dira:

- Zaramillo, La Cuadra eta Sodupeko egungo geltokiak ibilbide berrira lekualdatzea.
- Arangurengo geralekua lekualdatzea.
- Balmasedan bi geltoki berri sortzea, egungoa desagerraraziz.

Airetiko garraioari dagokionez, heliportuak kokatzea planteatzen da Ambasaguas (Karrantza harana) eta Mimetizen (Zalla); 3. ekintza estrategikoa, «Mendebaldeko eremuaren irisgarritasuna hobetzea».

Politika sektorialak

Trenbide Sarearen LPSko (2005) eta LPPko proposamen nagusiak bat datoz ibilbide luzeen eta aldiriko ibilbideen apartatuetan, baina ez da bat bera ere gauzatu. Bestalde, Artzentalesko udal-plangintzan 8. ekintza egituratzailea jaso da, Bilbo-Santander trenbide-sarea sustatzeari buruzkoa, gaur egun Traslaviñan (Artzentales) dagoen geltokia birkokatuz. Gainera, Zallako arau subsidiarioen aldaketan, gaur egun izapidetzen ari denean, Arangurenen tren-pasabideak desagerraraztea aurreikusten da.

Ez da heliporturik egin. LPPak erreferentziako ospitalea eraikitzeari lotzen dio Zallako heliportua.

Ondorioak

Hortaz, ondorioztatzen denez, LPPa arlo honetan LAGekin bat etorri arren, eremu funtzionalak plangintzako bi aldaketatan bakarrik egin ditu aurrerapenak 2011-2019 aldi honetan, baina lan bakar bat ere ez da egikaritu.

I.8 ZEHARKAKO GAIAK

1997ko LAGak onetsi zirenetik, zenbait gaik garrantzia hartu dute eta eragina dute lurraldean, nahiz eta lurraldera mugatuta egon ez. Honako hauek dira: irisgarritasun unibertsala, genero-ikuspegia, klima-aldaketa, osasuna, euskara eta lurraldearteko harremana. Gai horiek hiri-eredu trinko, konplexu eta kohesionatu bat dakarte eta horiek txertatzeak bizi-kalitatea hobetzeko balio du. Arlo horiek berriak dira lurralde-diziplinan eta LPPak ez ditu espezifikoki jorratu. Etorkizuneko berrikuspen batean, alderdi horiek guztiak gai orotan hartu beharko dira kontuan, eremu funtzionaleko antolamendua hobetzeko. Edozelan ere, LPPko zehaztapenetako asko bat datoz LAGek arlo horietan adierazten dutenarekin. Jarraian, hauteman direnak adierazten dira.

I.8.1 Irisgarritasun unibertsala

LPPak honako hauek sustatzen ditu, besteak beste: hirigintza trinkoa, erabilera mistoak, eta mugikortasun ona garraio publikoaren bidez edo baliabide motorgabeen bidez. Gainera, LPPak sare berde bat sustatzen du, ondare natural eta kultural horretarako irisgarritasun unibertsala ahalbidetzeko. Ildo horretan, LPPa bat dator LAGekin, hain zuzen ere, irisgarritasun unibertsal mota horren alde egiten dutenez. Etorkizuneko berrikuspenetan kontuan hartu beharko dira espazio publikoen eta ekipamenduen irisgarritasuna, eta irisgarritasun unibertsal digitala ere bai, batez ere adindunei eta desgaitasuna duten pertsonen begira.

I.8.2 Genero-ikuspegia

LPPak honako hauek sustatzen ditu, besteak beste: hirigintza trinkoa, erabilera mistoak, eta mugikortasun ona garraio publikoaren bidez edo baliabide motorgabeen bidez. Ildo horretan, LPPa bat dator LAGekin, hain zuzen ere hiri-habitat mota hori aldeztu baitute.

Gainera, landagunean garrantzi handia duen eremu funtzionala izaki, kontuan hartu beharko dira nekazaritza-jarduerako genero-desberdintasunak, ustategien titulartasuna eta erabakiak hartzeko orduan dauden rolak barne.

Eusko Jaurlaritzak eta ADR Enkarterrialdek sustatzen duten LANDA-GARAPENERAKO 2015-2020 PROGRAMARI dagokionez, adierazten da Berdintasun Plana duten eskualdeko udalerrien portzioa % 57,89 dela.

Bestalde, Enkarterriko udalerriek Berdintasunerako udal-planak idatzi dituzte edo Bizkaiko Foru Aldundiaren Parekatuz sareko kide dira. Baina udalerrri guztietan gauzatzeke dago hirigintzan zentratutako Berdintasun Planak idaztea.

I.8.3 Klima-aldaketa

LPParen zehaztapenak honako hauek dira, arlo hauetan:

- Garraioa; LPPak joan-etorriak trenez, bizikletaz edo oinez egitea sustatzeko ekimenak proposatzen ditu.
- Lehen sektorea; LPPak hondakinen kudeaketa (minden araztegia eta baso-biomasako enpresa) eta baso-kudeaketa hobetzea proposatzen du.
- Hiri-ingurunea; LPPak hirigune trinkoak, hurbileko jarduerak eta erabilera mistoak planteatzen ditu, berroneratzearen, berritzearen eta abarren bidez.

Gainera, LPPak sare berdea sustatzen du. LAGen arabera, azpiegitura berde horrek eta naturan oinarritutako soluzioek klima-aldaketara egokitzeko neurritzat balioko dute, eta baita ekosistemak lehengoratu eta lurraldearen erresilientziari eusteko ere.

Hau da, karbono gutxiko energia-eredua da. Baina LPPan ez dira kontuan hartu klima-aldaketatik eta eremu funtzionalaren erantzun espezifikoak eratorritako agertoki desberdinak. LPParen eta udal-plangintzen hurrengo berrikuspenetan, kontuan izan beharko da klima-ikuspegia, eta inpaktuen eta horiekiko zaurgarritasunaren oinarritzko azterketak egin beharko dira, baita aplikatzeko neurriak zehaztu ere. Gainera, hala dagokienez, xehetasun handiagoz egin beharreko azterlanak ere zehaztuko dituzte.

I.8.4 Osasuna

Aurreko puntuan aipatu den moduan, LPPak hirigune trinkoak, hurbileko jarduerak eta erabilera mistoak planteatzen ditu. Bidegorrien edo oinezkoentzako bideen bidezko mugikortasuna ere sustatzen du, baita sare berdea ere. Bestalde, ahal den heinean, murriztu egin behar dira gas-emisioak, bai jarduera pertsonaletan bai jarduera ekonomikoetan eta garraioan.

I.8.5 Euskara

Enkarterriko LPPan ez da euskara aipatzen hirigintzaren eta lurralde-antolamenduaren esparruan; horregatik, LPParen eta udalerrietako plangintzen hurrengo berrikuspenetan hizkuntza-ikuspegia ere jaso beharko da, sare presentzialen harreman-espazioak sustatuz eta indartuz, eta euskarazko toponimo edo terminoak erabiltzea sustatuz, haien aldaera normalizatuan. Horrekin batera, sentsibilizatzeko eta euskara babesteko lana egin beharko da, jada egiten dena.

I.8.6 Lurraldeen interrelazioa

LPPan kontuan hartu da Villaverde Turtzioz (Kantabria), eremu funtzionaleko bideak aztertzeke orduan. LAGek adierazten dute Enkarterriko hurrengo LPPetan espezifikoak hartu behar dela aintzat Villaverde Turtzioz (Kantabria), eta Trebiñu (Gaztela eta Leon) enklabea ere bai, enklabeok hainbat lurralde-alderditan duten eragina aztertzeke.

«Zeharkako gaien» ondorioa

LPPa etorkizunean berrikustean, alderdi horiek guztiak osotasunean hartu beharko dira kontuan, eremu funtzionaleko antolamendua hobetzeko.

I.9 GOBERNANTZA

LPPak ez du inolako zehaztapenik egiten ildo horretan. LAGen arabera, hurrengo LPPetan modu garden eta irekian parte hartzeke mekanismo bat jasotzea proposatzen da, baita LPParen segimendu eta ebaluazioa egiteke adierazle egokiak eta Enkarterriko LPPa beste LPS batzuekin koordinatzeko irizpideak ere. Udal-plangintzaren berrikuspenei dagokienez, LAGek adierazten dute ezin izango direla eskatu Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legean ezartzen diren izapideak baino gehiago.

II. ONDORIOAK

ONDORIO OROKORRAK

1. Enkarterriko eremu funtzionalaren LPPak 2019ko LAGekin koherentea den lurralde-eredua garatzen du, eta honako hauen aldeko apustua egiten du: natura-ondarea babestu eta balioestea; hiri-eredu dentso eta trinkoa, erabilera mistoekin; hiri-berroneratzea; eta baliabideak hobeto aprobetxatzea. Baina LAGetan kontzeptu berriak jasotzen dira, hala nola ekosistemen zerbitzuak, klima-aldaketa, genero-ikuspegia, osasuna, irisgarritasun unibertsala, euskara, partaidetza eta gobernantza, LPParen hurrengo berrikuspenean jaso beharko direnak.
2. Proposatzen den lurralde-eredua politika sektorialekiko koherentea da, nahiz eta hurrengo berrikuspenean informazioa eguneratu egin beharko den eta zehaztapen sektorial lotesleak jaso beharko diren.
3. Ez da egin LPPan aurreikusitako industria-garapena, eta ekipamendu handirik ere ez da eraiki; ondorioz, ez da eraiki bizitegirik, eta LPPan proposatzen den lurzoru urbanizagarrien kopurua gehiegizkoa da. LPParen eta udalerrien plangintza orokorren berrikuspenetan, behar errealistei erantzun behar zaie, 2019ko LAGen arabera kuantifikazioa egin behar da, eta lurzoru kalifikatuak lurzoru urbanizaezin gisa birsailkatzeko aukera aztertu behar da.
4. Lurralde-plangintzarekin bat etorri arren, 2011-2019 aldian, eremu funtzionaleko hirigintza-eraldaketak urriak izan dira eskaria falta dela eta. Ondorioz, eremu funtzionaleko udalek (Artzentaleskoak izan ezik) ez dute beren hirigintza-plangintza Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legea moldatu, nahiz eta Gordexola, Balmaseda eta Karrantza Haraneko udalek izapideak hasi dituzten.

EKINTZA EGITURATZAILEAK ETA ERAGIKETA ESTRATEGIKOAK

5. Aurreikusitako 14 ekintza egituratzaileetatik eta 12 eragiketa estrategikoetatik, natura-ondarea babesteko edo hobetzeko xedea zutenetan egin dira aurrerapenak, nagusiki.
6. Ez dira egin LPPak proposatutako azpiegiturak edo ekipamenduak, hau da, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Enpresa Garapenerako Ekipamendua Karrantza Haranean, eta beste bat Artzentalesen; Sopuertako Kirol eta Turismorako Ekipamendu handia eta Zallako Ebazpen Handiko Ospitalea; eta Artzentalesko eremu erreserbatuan ekipamendu pribatu bakarra egin da nekazaritza eta abeltzaintzako enpresen garapenerako. Bestalde, Zallan Suhiltzaile Parkearen Sistema Orokorrari buruzko Plan Berezia izapidetzen ari dira, LPPan jasota ez dagoena.

INGURUNE FISIKOA ETA AZPIEGITURA BERDEA

7. Antolamendu-kategoriei dagokienez, ikus daiteke LPPko kategoriak bat datozela LAGekin, baina aldaketa txikiak daudela izenetan, LPParen berrikuspenean zuzendu beharko direnak. Gainera, «Babes bereziko» esparruen mugak eguneratu egin beharko dira onetsitako babes-figuren arabera (KBE, biotopo babestuak, eta abar), eta korridore ekologikoak baldintzatzaile gainjarritzat jaso behar dira antolamendu-zehaztapenetan.
8. LPPan «Balio estrategiko handiko nekazaritza- eta abeltzaintza-eremuak» jasotzen dira, Nekazaritza eta Basogintza LPSkoak, baina antolamenduan «Erabilera publikoko mendiak» eta «Babeserako mendiak» baldintzatzaileak ere jaso beharko ditu.
9. LPPak «Sare berdearen» figura jasotzen du, eta, horretan, Naturagune Babestuak, Paisaia Intereseko Nekazaritza Sistemak eta natura-ondarera iristeko eta horretaz gozatzeko espazio libre eta ibilbideak sartzen dira. LPParen proposamenez, hauek eraiki dira:

Galdamesen naturaren interpretazio-zentro bat, aisiarako eremuak, oinezkoentzako sarearen tarteak eta bide berdeak.

LANDA-HABITATA

10. Egungo Lurzoru Urbanizaezinaren izaerari eusteko, ezinbestekoa da dauden landaguneak kontrolatzea eta, ahal den heinean, plangintzaren berrikuspenetan hiri-lurzorutzat birsailkatzea saihestea, LPPak hala zehazten duen kasuetan salbu. Karrantza Haranean landagune ugari daude (44) eta, bertan, HAPOa LPParekin bat etorriko da landaguneetako bi hiri-lurzorutzat birsailkatzeko.

HIRI-HABITATA

Hiri-sistema

11. LPPak guneen sarea honela sailkatzen du: burutzak (Balmaseda eta Zalla), azpiburutzak (Gueñes eta Sopuerta), gunen nagusiak eta bigarren mailako gunek, eta hirugarren sektorearen garapena sustatzea proposatzen du hala burutzetan nola azpiburutzetan. Garrantzi handieneko nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorea eremu mendebaldarrean finkatzen du (Karrantza Harana, Turtzioz eta Artzentales), egungo biztanleria eta paisaia mantentzeko elementu gisa; Zallan eta Sopuertan kokatzen ditu ekipamendu berriak, horiek sustatzeko; eskualde mugakideetako biztanleei bigarren bizilekua eskaintzeko aprobeztatzea aipatzen du; eta birdentsifikazio-politikak sustatzen ditu, batez ere Balmasedan; baita jada artifizialdutako lurzoruetan erabilerak nahastea ere.
12. LPPak bi eremu mota ezartzen ditu: hiri-esparru garatuak eta garapen berriko eremu lehenetsiak, dentsitate ertain-altuak eta altuak zehaztuz, azken horietarako. Zehazki, dentsitate ertain-altuak Balmasedan, Zallan eta Gueñesen daude, Kadaguako korridorean, eta hori bat dator LAGekin, horietan korridore hori eremu funtzionalaren eraldaketa-ardatz gisa zehazten baita.

Hiri-berroneratzea

13. LPPan bost esku-hartze mota ezartzen dira lehendik dauden hiri-esparru garatueta: Birdentsifikazioa, tren-geltokitik gertuko bizitegi-lurzoruei lehentasuna emanez (Kadagua Harana edo Artzentales); edo komunikazio-bide nagusietatik hurbil daudenei (Kadaguako korridorea eta Malabrigo); etxebizitza hutsak berreskuratzea eta intereseko arkitektura-ondarea birgaitzea; lurzoru industrial hutsak birmoldatzea; eta lurzoru ez-bideragarriak lehengoratzeko edo desklasifikatzeko, Zallan eta harrobietan (Karrantza Harana eta Galdames).

Hiri-hazkundearen perimetroa

14. Hiri-hazkundearen perimetroa 2019ko LAGeko figura berri bat da eta, hortaz, LPPak ez du horren inguruan ezer berezirik zehazten. Edozelan ere, LPPak proposatzen dituen birdentsifikazio-jarduketetan lehendik dauden hiri-bilbeak osatzea lehenesten da, batez ere Kadagua eta Karrantza Haranetan, eta horiek bat datoz LAGekin; azken horiek zehazten dute Kadaguaren Korridoreko hiri-hazkundearen perimetroa aipatutako ardatza osatzera eta finkatzera bideratuko dela. Hurrengo LPPa idazteko orduan, hiri-hazkundearen perimetroa mugatu beharko da, lehendik dagoen bilbeari lotuta, guneen arteko lurralde-hutsuneak babestuz eta zeharkako konexio ekologikoak sustatuz. Hori guztia, LPParen iraunaldian hirigintza-okupazioaren beharra kontuan hartuta.

Ekonomia-jardueretara bideratutako lurzorua

15. LPPak ekonomia-jardueretara bideratzen dituen lurzoru berriak ez dira kalifikatu udal-plangintzan, Gueñes hirigunearen hegoaldeko hirugarren sektorerako eta industria-erabilerarako eremu mistoa izan ezik. 2011ko eta 2019ko UDALPLANetako datuen arteko konparazioa eginez gero, aldi horretan 3,07 ha okupatu dira; 2019an 87,09 ha okupatuta zeuden eta 84,56 hutsik, plangintzan guztira kalifikatuta dauden 171,65 ha-tik. LPParen epemugan ekonomia-jardueretara bideratutako lurzoruen kuantifikazioa modu errealista batean aurreikustean datza erronka.

Bizitegi-lurzorua

16. Emandako lizentziei erreparatuz gero, ikus daiteke 2011-2018 aldiko LPPa behin betiko onetsi zenetik, 264 etxebizitza eraiki direla LPPan 2019rako ezarritako 3.981 etxebizitzako minimotik; baina azken zifra hori txikiagoa da LAGen bizitegi-kuantifikaziorako metodo berriaren arabera; 8 urtean 3.258 etxebizitza, gutxienez gabe. Kuantifikazioari dagokion erronka aurreko puntukoaren antzekoa da.

Plangintzen bateragarritasuna

17. LPPak adierazten du Balmaseda eta Zallako udalerriek batera jardungo dutela Balmaseda sarreran aurreikusitako hirugarren sektoreko eta merkataritzako ekipamendua eta horri lotutako poligonoa ezartzen, eta hori plangintzak Bateratzeko Plan baten bitartez egin beharko da.

PAISAIA, KULTURA-ONDAREA ETA TURISMOA

18. Eremu funtzionalak katalogo bat eta paisaia-zehaztapenak ditu (2018), eta baita paisaiari loturiko zenbait ekintza-plan ere: Karrantza Harana, Balmaseda (Gazteluko muinoa), Zalla, Sopuerta (Mendi- eta meatzaritza-paisaia), Galdames (meatzaritza-paisaiak).
19. LPPak kultura-ondarean proposamenen hauek egiten ditu: Balmaseda eta Lanestosako hirigune historikoak hobetzea eta Erromatarren Galtzadari babes berezia ematea, bi ibilbide kultural Gordexolan eta kirol- eta turismo-ekipamendu handi bat eraikitzea Sopuertan; ikusten denez, Lanestosa bakarrik ari da Hirigune Historikoa Biziberritzeko Plan Berezi bat izapidetzen eta Balmasedak jada bazuen bat, 2000. urteaz geroztik. LPParen etorkizuneko berrikuspena Euskal Kultura Ondareari buruzko maiatzaren 9ko 6/2019 Legean ezarritakora egokitu beharko da.
20. Natura- eta kultura-ondarearekin loturiko turismoari dagokionez, naturaren interpretazio zentro bat inauguratu da (La Aceña, Galdamesko bide berdean), eta paleolitikoko labar-arteari buruzko beste bat (KobenKoba, Sangrices auzoa, Karrantza Harana).

BALIABIDEEN KUDEAKETA JASANGARRIA

21. Lanen lehen fasea egikaritu da, Enkarterriko udalerri mendebaldarrenen ur-hornikuntza indartzeko.
22. Araztegiak eraiki dira Lanestosan, Artzentalesen, Turtziozen eta Sopuertan, eta geldirik dago Karrantza Haraneko minda-tratamendurako instalazioa eraikitzea.
23. 2015-2020 Garapen Planean, Espainiako Sare Elektrikoak Gueñes eta Itsaso artean goi-tentsioko linea bat eraikitzea proiektatu du, eta ez da jasotzen LPPak La Jara-Vallegón linearen trazaduraren alternatibari buruz egiten duen proposamena.
24. Energia alternatiboari dagokionez, biomasa-instalazio bat ezarri da Zallan.



25. Enkarterri komunikazio fisiko zaileko eremu funtzionala izaki, ezinbestekoa da telekomunikazio-azpiegiturak hobetzea, eremu bakartuenei behar bezalako estaldura emateko eta hiriguneen eta landaguneen arteko arrakala digitala txikiagotzeko.
26. LPPak kutsatuta egon daitezkeen lurzoruak berreskuratzea proposatzen du, nagusiki Kadagua Haranean daudenak, eta, hein txikiagoan, Gordexolan, Sopuertan eta Karrantza Haranean.

MUGIKORTASUNA ETA LOGISTIKA

27. LPParen proposamenak, nagusiki, bizikletentzako eta oinezkoentzako bideetan gauzatu dira eta zenbait Ibilbide Naturalistiko egin dira, eguneroko mugikortasunari zein aisiari zerbitzu emateko (Sare Berdea, batez ere Kadaguako Ibai Parkean eta Ingurumen- eta Landa-parkean). Halaber, Bizkaiko Bizikleta Plan Nagusiak (2003-2016) erabiltzen ez ziren zenbait trenbide-tarte bide berde izateko egokitu ditu: Burdinmendi bide berdea (Castro-Traslaviña tren), Galdamesko bide berdea eta Itsas lur bide berdearen eta Galdameskoaren arteko lotura. Bestalde, hobekuntzak egin dira BI-3602 errepidean, eta, hala, jarraipena eman zaio Zalla eta Otxaran arteko oinezkoentzako sareari.
28. Aurrerapen txikiak egin dira proposatutako intermodalitate-puntuetan, zenbait tren-geltokitan: Sodupe, Aranguren, Mimetiz (Zalla), Balmaseda eta Ambasaguas (Karrantza Harana); aldaketa bat baino ez da topatu Zallako arau subsidiarioetan, Aranguren esparruan, eta une honetan izapidetzen ari da.
29. LPPko proposamen gehienak jaso dira Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen 3. Plan Orokorrean; Lehentasunezko Intereseko Sareko jarduketa-proposamenen barruan, Lanestosako saihezbidea dago jasota; eta Oinarrizko Sarearen proposamenen barruan, berriz, BI-630 errepidean jardutea dago, Malabrigo-Turtzioz eta La Escrita-Ambasaguas tarteetan, eta Balmasedako saihezbideko bide geldoa amaitzea.
30. Gauzatzeke dauden arren, LPPko proposamen nagusiak Trenbide Sareko LPSan daude jasota (2005); Artzentalesko plangintzak, berriz, Traslaviñako egungo geltokia birkokatzea jasotzen du, eta Zallakoa Aranguren dauden tren-pasabideak kentzea izapidetzen ari da.
31. Ez dira egin LPPan aurreikusita dauden heliportuak: Ambasaguas, Karrantza Haranean, eta Mimetiz, Zallan.

Elektronikoki honako hauek sinatua:
Firmado electrónicamente por:

LURRALDE ANTOLAMENDUKO
ARKITEKTOA
ARQUITECTA DE
ORDENACIÓN TERRITORIAL

Izta. Victoria Azpiroz Zabala:
Izta.

LURRALDE ANTOLAMENDUKO ETA
PLANEAMENDUKO ZERBITZUAREN
ARDURADUNA
EL RESPONSABLE DEL SERVICIO DE
ORDENACIÓN DEL TERRITORIO Y
PLANEAMIENTO


Fdo.: Jesús M^a Erquicia Olaciregui:
Izta.

O.E. / V^o B^o
LURRALDE PLANGINTZA, HIRIGINTZA
ETA BERRONERATZE ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, URBANISMO Y
REGENERACIÓN URBANA.

Fdo.: Ignacio De La Puerta Rueda:
Izta.


I. ERANSKINA.- LURRALDE- ETA HIRIGINTZA-JASANGARRITASUNEKO ADIERAZLEAK

1.- Lurralde-eredua. Lurzoruaren kalifikazioa



Nabarmentzekoa da eremu funtzionalean alde handia dagoela jardura ekonomikoetarako kalifikatutako ehunekoan: altuagoa da Kadagua Haraneko udalerrietan (Balmaseda, Zalla eta Gueñes), eta oso baxua da, edo hutsaren hurrengoa, gainerakoetan. Kadagua Haraneko balioak pixka bat baxuagoak dira EAEko batez bestekoa baino. Bizitegi-lurzoruari dagokionez, Lanestosa nabarmentzen da, baina oso udalerririk txikia denez, eta gehiengan bizitegi-lurzorua duenez, grafikoa hori kontuan hartuta interpretatu behar da. Gainerako udalerrietan, jardura ekonomikoetara bideratutako lurzoruaren antzeko joera hautematen da, eta Kadagua Haraneko udalerrietan (Balmaseda, Zalla eta Gueñes) daude balio altuenak.


2.- Biztanleria-dentsitatea (orokorra eta hirikoa)



Balmasedako hiri-dentsitatea nabarmentzen da, eta Zallarena ondoren, bai guztizkoari bai kalifikatuari dagokienez, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko batez bestekoa baino pixka bat txikiagoak dira.


3.- Hiri-eredua

- Lurzoru urbanizagarriaren ehunekoa hiri-lurzoruekiko.



Adierazlearen balio oso desberdinak ditu: batetik, Galdamesko eta Balmasedako balioak EAEko batezbestekoa baino hiru eta bost aldiz handiagoak dira; bestalde, Karrantza Haranak, Gueñesek, Sopuertak eta gainerakoek EAEko batezbestekoaren antzeko balioak dituzte.


- Bizitegi-lurzoru urbanizagarriaren eta jarduera ekonomikoetarako lurzoruen ehunekoa, guztizko lurzoru urbanizagarriarekiko.



10 udalerrietako 6tan, lurzoru urbanizagarri guztia da bizitegi-lurzorua, eta Balmasedan eta Gueñesen, berriz, jarduera ekonomikoetara bideratutako lurzoru urbanizagarri handiagoa da bizitegitarako lurzorua baino; Galdames eta Zallan, berriz, ia proportzio bera dute. Osorik hartuta, eremu funtzionalak lurzoru gutxiago eskaintzen du jarduera ekonomikoetarako bizitegiarako baino, EAEko batezbestekoa kontuan hartuta, baina Bizkaiko Lurralde Historikoak baino gehiago.


4.- Bizitegi-garapena. Plangintzako etxebizitza-aurreikuspena

- Aurreikusitako etxebizitza kopuruaren gehikuntza-ehunekoa




Udalerri guztietan, Zallan izan ezik, batez beste, gehikuntza handiagoak espero dira EAEn baino. Artzentalesen kasua nabarmentzen da, 2/2006 Legea egokitutako plangintza orokorra duen eremuko udalerri bakarra izaki.

- Guztizko etxebizitza kopurua, ehun biztanleko



5.- Etxebizitza-dentsitatea



Hiri-lurzoruetan aurreikusitako etxebizitza-dentsitatea handiagoa da lehen zegoena baino, eta lurzoru urbanizagarrietan aurreikusitakoa nabarmen baxuagoa da bi horiek baino, Artzentalesen kasuan izan ezik; izan ere, bertan, dentsitateak handitu egin ziren plangintza orokorraren berrikuspenean. Balmasedan izan ezik, balio guztiak baxuagoak dira EAEko eta lurralde historikoetako batezbestekoak baino.

6.- Lurzoruaren artifizializazioaren / kalifikazioaren bilakaera (EAE)

